


Nawal Al Saadawi

«Zer da kapitalismoa,
patriarkalismo ekonomikoa
ez bada?»



- **Aritz Agirre**, Euskadi Irratia «Telebista sormenean asko aurreratu zaio irratuari»
- **Osasuna** Gaixo kronikoen eta ospitalearen arteko elkarlanaren onurak
- **Anai-Artea** Jean Fagoaga, Battitta Larzabal eta Mixel Mendiburu, preso eta iheslariez
- **Net Hurbil** Jacques Vergès, klase guztietako jendeen abokatua izan zena
- **Getxophoto** Ametsak ardatz, nazioarteko argazki jaialdiaren 7. edizioan



dokumentalak.com

Euskarazko dokumentalen biltegia sarean

Ostiralero lan berri bat ikusgai

Dagoeneko 145 dokumental eskura

Anuken egia
Arrhash, pozoina
Banlieues. Pariseko errebolta
Basque hotel
Bidaia Intimoak
Botilen hilerria
CAN: Kutxa hutsa
Companys eta Agirre azken erbesterantz
Debekatuta dago oroitzea
Egunero
Egunkaria, hamar urte geroago
Elburua Gernika
Euskal Herria: Ezkutuko zorra
Euskararen jatorria: Enigma europar bat
Gudari baten egunerokoa
Haizea eta sustraiak
Insumisioa. 20 urte desobeditzen
Iparraldea XXI

Irakeko kurduak, bizitza bazterbidean
Iruña-Veleiako misterioa
Itoitz hustu arte
Itsasoren alaba
Langile autonomia
Leku hutsak, hitz beteak
Nire bizi osoa espetxean
Nömadak Tx
Oroitarrria
Perurena
Pluja seca - Euri lehorra
Sagarren denbora
Sahara marathon
Salda badago
Santi Brouard. Euskal Herria Osagai. Duintasuna omen
The Yes Men fix the world
Tortura Euskal Herrian

...eta askoz gehiago

**Zure lanen bat kanal honetan sartu nahi baduzu,
jarri gurekin harremanetan:**

multimedia@argia.com

www.twitter.com/dokumentalak

www.facebook.com/dokumentalak

argia.com

EGUZKI
BIDEOAK *elkarlanean*





Azaleko argazkia:
HAMADA ELRASAM
Azala: GARBINE
UBEDA GOIKOETXEA



ARGIAKO edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitara ditzakezu, gure egiletza aitortu eta baldintza beretan eginez gero.

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Lehendakaria: Bego Zuza. Zuzendaria: Estitxu Eizagirre. Asteko Gaia-Pertsonaia: Mikel Garcia. Iritziak: Mikel Asurmendi. Kultura: Garbine Ubeda Goikoetxea. Aisia: Unai Brea. Termometroa: Urko Apaolaza, Xabier Letona, Pello Zubiria. Euskara: Onintza Irureta. Interneteko erredakzio-burua: Lander Arbelaiz. www.argia.com: Gorka Bereziartua, Jon Torner. Multimedia: Axier Lopez. Argazkilaria: Dani Blanco. Produktzioa: ANTZA, S.A.L.

Kudeaketa eta salmenta: Berdaitz Goia. Harpidetzak: Karlos Olasolo. Idazkaritza teknikoak: Aloña Soruluze. Publizitatea: Idoia Arregi, Maite Arrieta, Ixabel Bereziartua, Olatz Korta, Bego Zuza. Administrazioa: Marijo Aiertza, Mari Karmen Loiarde. Harrera: Jone Arzallus.

HELBIDEAK: Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxe: 943 361048. Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 476000. Faxe: 559 476001. Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. Tel: 94 6765580. Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285. POSTA ELEKTRONIKOA. Komertziala: komertzial@argia.com. Harpidetzak: harpidetza@argia.com. Erredakzioa: kazeta@argia.com. Interneten: www.argia.com. Lege gordailua: NA 80-1963. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E. Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iametza interaktiboa, S.L. Urtebeteko harpidetza. Hego Euskal Herria: 145 euro. Ipar Euskal Herria: 176 euro. Espainia: 145 euro. Beste atzerriak: 182 euro. Airez: 285 euro. Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaiña Taldeko partaidea da.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAIA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia



NON ZER

2013ko irailaren 1a, 2.380. zenbakia

ASTEKO GAIA

GAIXO KRONIKOAK Norberaren gaitza, norberaren esku.
ONINTZA IRURETA AZKUNE / 4

PERTSONAIA

ARITZ AGIRRE: «Mundua euskara hutsez azaltzerik bada eta Euskadi Irratia horren adibidea da». REYES ILINTXETA / 9

GAIK

NAWAL AL SAADAWI: «Inoiz baino haserreago nago».
ANE IRAZABAL / 14

IRITZIAREN LEIHOA

BALTIKOTIK KATALUNIARA ASIER BLAS MENDOZA / 18

KALE BUELTA JOSE IGNAZIO ANSORENA / 20

GORA PRO NOBIS ASISKO URMENTA / 19

TXANDAN Motzean esana. KATTALIN MINER / 20

HEMEROTEKA Zein izango da espainiar gatazkako Bosnia?
HÉCTOR LOPEZ BOFILL / 21

BERTSO BERRIAK Delegatuaren lanei jarriak.
AITOR SARRIEGI / 21

ERDIKO KAIERA

GETXOPHOTO Ametsezko munduak, komisario berriaren eskutik. MYRIAM GARZIA / 22

MUSIKA Morauren arrainontzi musikala betetzen ari da.
LANDER ARRETxea / 27

LITERATURA SAIOA RUIZ GONZALEZ / 28

MUSIKA JOXI UBEDA / 29

DENBORA-PASAK ANA ZAMBRANO, KIKE AMONARRIZ / 30

ALEA Bertsoa paraje eta eskenategi bariatuenetara iritsiko da irailan. ESTITXU EIZAGIRRE KEREJETA / 31

OSASUNA JABIER AGIRRE / 32

LANDAREAK JAKOBA ERREKONDO / 33

DENBORAREN MAKINA NAGORE IRAZUSTABARRENA / 34

TERMOMETROA

ANAI-ARTEA Presoen askapena eta iheslarien itzulera ez dira bakarka ariz lortuko. MIKEL ASURMENDI / 36

MAIZPIDE EUSKALTEGIA Barnetegia urte osoan zabalik.
IURE EIZAGIRRE / 42

HIRIGINTZA Etxeak sakabanatzea harresi sozialak eraikitzea da. GORKA BEREZIARTUA MITXELENA / 45

EUSKARA ALBISTEAK ONINTZA IRURETA AZKUNE / 47

EKONOMIAREN TALAIA JUAN MARI ARREGI / 47

NET HURBIL Jacques Vergès abokatu mitikoa hil da Parisen.
PELLO ZUBIRIA KAMINO / 48

MALTZAGATIK XABIER LETONA / 50

Norberaren gaitza, norberaren esku

Donostia Ospitaleak gaixo kronikoenganako bi helburu ditu: bata, haien bizi kalitatea hobetzea, eta bestea, osasun sisteman gaixook ahalik eta eragin gutxien izatea. Horretarako kronikoei euren gaitza ezagutzen irakasten diete, baita osasun langile talde erreferentziala eskaini ere.

| ONINTZA IRURETA AZKUNE |

Argazkiak: Dani Blanco

DONOSTIA OSPITALEAN, 2003-2004 urteetan, konturatu ziren gaixo multzo bat behin eta berriro joaten zela ospitalera. Gaixo horiek 23.000 egun igaro zituzten ospitaleko oheetan. Azterketa egin zuen ospitaleko langile taldeari galdera asko zetozkion burura: norzuk dira ospitalera datozen gaixo horiek? Aurreikusi al dezakegu zein etorriko diren berriz? Zer egin dezakegu etor ez daitezen? Jose Artetxe medikua Hauskorren Unitateko arduraduna da eta Frogetan Oinarritutako Medikuntzaren bidez egindako lanean burubelarri dabil: “Kontua ez da gaixoak ospitalera ez etortzea. Gauza da gaixoen arazoez arduratzea, eta ospitaleak berak dituen egiturazko gabeziak kontuan hartzea”.

Behin eta berriz ospitalera zihoazen gaixo gehienek bihotzeko eta arnas aparatuko gaitzak zituztela konturatu ziren. Pazienteak ez zeuden batere pozik artatzeko moduarekin, batetik bestera eramaten den fardel sentitzen ziren. Ospitalera larri joanda ez zekiten zein medikuk artatuko zituen, batzuetan ordura arteko medikazioa aldatzen zieten –botiken izena baino aldatuko ez bazen ere–.

Nazioarteko literatura zientifikoa begiratu eta gero, 2005ean, programa abian jarri zuten. Gaixo kronikoak ospitalean beti mediku bera izango zuen; hari deitzeko, idazteko, eta aurrez aurreko kontsultak egiteko. Erizainak etxera deituko zion eta hainbat galdera ingo zizkion gaitzaren jarraipena egiteko. Ondoezik sentitu eta ospitalera joateko premia izanez gero, larrialdietatik pasa gabe, bere medikuak artatuko luke. Txarreanean, alegia

larrialdietara joko balu gaixoak, ordenadorean oharra agertuko litzateke: urlia gaixo kronikoa da eta halako du mediku. Ez lukete ospitaleko edozein geletara igoko, bere medikuak lan egiten duen korridorera baizik.

Irizpide orokor horiek jarraitzeaz gain, gaixoei poltsikoko ordenadorea zeukaten datuak sartu eta ospitalera bidaltzeko. Zenbaitek larrialdietako 112 zenbakira deitzeko botoia ere bazuen. Aldea segituan nabaritu zuten Donostia Ospitalean: larrialdietako gaixo kronikoen bisitak %80 jaitsi ziren eta ospitaleratze egunak beste hainbeste. 2005etik gaur arte hainbat proba eta aldaketa egin dituzte. Poltsikoko ordenadorea kendu eta internet bidezko harremana bultzatu dute. Modu horretara ere, emaitzak esanguratsuak izan dira: larrialdietako bisitak %70 jaitsi dira eta ospitaleratze egunak beste hainbeste.

Joan Migel Landak urtebete darama ospitaleratu gabe

Joan Migel Landak 83 urte ditu, 84 egiteko. Donostiako Alde Zaharrekoa da, Benta Berri auzoan bizi bada ere. Eguraldi ona bada goiz eta arratsalde ateratzen da etxetik, ez zaio gustatzen lau hormen artean egotea. Pare bat txakolin eta pintxoak ia eguneroko gutizi ditu. Bakarrik bizi da hala nahi duelako, nahiz eta seme-alabak oso gertu dituen.

Landari bihotza ezinean dabilkio eta biriketako gaixotasun kronikoa dauka. Duela bost bat urte, udaldian hiru aldiz eraman behar izan zuten ospitalera. Kilo asko galdu



Joan Migel Landa gaixo kronikoa, Arantza alabarekin. Aita-alabak oso pozik daude ospitaleko egitasmoarekin. Gaixotasunaz asko ikasi du Joan Migelek eta orain badaki sintomak noiz diren abisu ematekoak eta noiz ez.



Juan Ramón Caminori bihotza biltzen duen mintza kendu zioten iaz: “Badakit noiz deitu eta nora deitu, erizainaren eta medikuaren telefonoa dauzkat. Zerbait igartzen badut deitu egiten dut. Berandu baino lehen deitzea da kontua, ez dezatela medikuek gaixoa muga pasata aurkitu”.

zituen garai hartan eta ospitaleratze bakoitzean egoera fisiko orokorrak behera egin zuen. Jose Artetxe medikuaren taldearekin egin zuen topo ezustean. Ordurako abian zen gaixo kronikoentzako programa. Handik aurrera gaixoaren eta osasun zerbitzuaren arteko harremana bestelakoa izango zen. Osasun langile talde zehatza izango zuen Landak. Jose Artetxe medikuaren telefonoa, eta hura lanean ez zenean artatuko zuen medikuaren izen-abizenak eta telefonoa izango zituen. Hilero hasi zen joaten Donostia Ospitalera, Artetxerengana, ohiko azterketa egitera. Hamabostean behin Isabel Huerta erizainak etxera deituko zion haren egoeraz galdezka.

Bidea urratuta zutela Artetxek Joan Migelen alaba Arantzari (erizaina bera) galdera egin zion: zure aita poltsikoko ordenadorea erabiltzeko gai izango al litzateke? Alabak zalantza asko zituen: “Aitak 70 urtetik gora ditu eta orain horrelako tramankulu batekin hasi behar al du? Idatziz jarri beharko diot: ‘Orain botoi hau sakatu, gero beste hau...’, eta astero anai-arrebok txandakatu beharko gara datuak sartzeko”. Poltsikoko ordenadorea erabiltzen hasi eta hamabost bat egunera aitak errieta egin zion alabari: “Baina zer uste duzu, inozoa naizela? Uste duzu ez naizela gai izango aparatu honekin moldatzeko? Utzi bakean!”.

18 hilabetez, probak iraun zuen denboran, poltsikoko ordenadorea, tentsioa hartzeko aparatua eta pulsiometroa erabili zituen Landak. Azken bien datuak zuzenean sartzen zitzaizkion ordenadore txikian. Bestelako informazioa, hala nola, bihotz taupaden maiztasuna eta oxigeno saturazioa, arkatz digitala erabiliz sartzen zituen poltsikoko ordenadorean.

83 urteko donostiarrarentzat ordenadore txiki hark abantailak baino ez zituen. Orduz geroztik ere, ospitalera jo behar izan du, baina ez hasiera hartan bezainbat. Larrialdietara egoera hobean iritsi izan da, ospitaleko ohean gau gutxiago egin behar izan ditu, eta azkarrago etorri da bere onera etxera joandakoan. Arantza Landa alabak, erizaina izaki, ederki antzeman du aldaketa: “Aitak sintomak antzematen ikasi du, badaki zer esan nahi duen orkatilak puztuta edukitzeak, badaki zer den arnasestua, eta badaki zein sintoma diren larriak eta noiz eman behar duen abisua. Lehen gaizki sentitu arren ezer esan gabe eutsi egiten zion, eta orain halako edo bestelako sintoma larriren bat duenean senideoi deitzen digu edo botoia sakatzen du 112koek erantzun diezaioten”.

Internetera jauzia

Bikain moldatu zen Landa poltsikoko ordenadorearekin, baina eraginkortasunaren eta gastu ekonomikoaren parametroak aintzat hartuta proba bertan behera geratu zen. Hurrengo erronka gaixoaren eta ospitalearen arteko harremanean internet erabiltzea izan zen. Landa ez zen ausartu jauzi hori ematera eta nahiz eta autonomia galdu, alaba hasi zen internet erabiltzen. Egunean zehar ez badio deitzen, alabak badaki aita ondo dagoela, eta beraz, gauean ospitaleak atondutako webgunean galdetegia ohiz kanpoko ezer gabe betetzen du: orkatilak ez daude puztuta, bihotz taupadak hainbeste... Aldiz, aitak sukarra badu alabak galdetegian “Sukarrik baduzu?” galderari baietz erantzungo dio. Ondorioa berehal-

koa da, oharra segituan aterako da: “Parazeta-mola hartzen hasi zortzi orduro”. Goizetan medikuak gaixo kronikoen galdetegiak berri-kusten ditu eta automatismoak emandako erantzuna aldatu edo egokitu nahi badu hala egiten du. Kateak gero eta hobeto egiten du lan; aitak sintomak segituan antzematen ditu; alabari abisua ematen dio; honek ordenadorean sartzen du; aparatuak zein botika hartu esaten dio; medikuak prozesu hori gain-begirutzen du. Arantzak aitortu du azkenerako sintoma bakoitzaren aurrean badakiela zer erantzungo dion ordenadoreak eta sarritan ez direla aparatuaren zain egoten botikak hartzeko. Artetxe medikuak baieztatu digu gaixo gehiagok ere ikasi dutela sintomak antzemanda dagozkien botikak hartzen. Arantzak argi dauka aitaren bizi kalitatea hobea izan dela azken urteotan: “Sintomak antzeman eta erremedioa azkar emanez gero gutxiago desorekatzen da aita, errazago erre-kuperatzen da. Bost urteko epeaz ari gara eta azkeneko urte honetan ez du ospitaleratzetik behar izan. Ni lasai nago interneti eta telealar-mari [112ra bideratzen duen botoitxo]a esker”.

2005ean abian jarritako programari esker, Donostia Ospitalean larrialdietako gaixo kronikoen bisitak %80 jaitsi ziren eta ospitaleratze egunak beste hainbeste

Botika asko hartzen duen galdetu diogu Landari, eta alkandorako poltsikotik plastikoa bildutako txarteltxo atera digu. Hamarretik gora sendagai hartzen ditu, buruz dakizki izenak eta bakoitza zertarako den. Beti darama zerrendatxo soinean. Oso gustura dago ospitaleko lantaldearekin eta lan egiteko moduarekin: “Orain askoz hobeto nabil. Lehen edozein mediku egokitzen zitzaidan eta orain beti Artetxe. Berak bada-ki zein naizen eta zer daukadan”. Medikua eta lantaldea erreferentzia bihurtzen dira gaixoarentzat eta konfiantza errazago sendotzen da.

Juan Ramón Caminoren bisitak

Juan Ramón Camino Txopitea erreteriarri (Gipuzkoa) medikuak esan zion hanka bat beste munduan zuela egon zela. Urtebetez gorriak pasa eta gero perikarditisa diagnostikatu zioten, alegia, bihotza eta odol-hodi handiak biltzen dituen mintza puztuta zeukan. Duela urtebete esan zioten hori eta iazko uztailaren 31n ebakuntza egin zioten mintza kentzeko. Gaixo kronikoa da Camino eta azken urte honetan mediku bera du, Xabier Goikoetxea. Donostia Ospitalean bisita datak ezarrita dauzka eta



EGIZU HARPIDETZA
EGIOZU HARPIDETZA

Hego Euskal Herrian 145 € / Iparr. Euskal Herrian 176 €

Izen-abizenak

Helbidea

Posta kodea Herria

Herrialdea

N.A./I.F.K.

Telefonoa

e-posta

Kontu zenbakia (20 digitu)

☐ Ikasle bazara (unibertsitate / euskaltegi) edo
Gazte Txartela baduzu %25eko deskontua harpidetzan.

943 37 15 45 · harpidetza@argia.com

Jaso lekuan
kobratu
SEILORIK EZ



1-FD POSTA KUTXA
20160 LASARTE-ORIA
(GIPUZKOA)



ERANTZUN KOMERTZIALA
Baimen zkia. 17352
(B.O.C. 22/99-06-02koa)

ZEROLAN
MAGAZINA
MAGAZINA

Rafael Bengoa osasun sailburu ohiaren proiektu bete gabea

JOSE ARTETXE Donostia Ospitaleko Hauskorren Unitateko arduradunak eman digu datua: Euskal Autonomia Erkidegoko gaixo kronikoek osasun sistemen %70 erabiltzen dute, dela eurotan, ordutan eta ohetan. Artetxeren ustez, “sistema hipotekatuta dago”. Joan den legegintzaldiko Eusko Jaurlaritzako Osasun sailburuak prestatutako estrategia ekarri du gogora. Bere iritziz, Bengoaren proiektuaren diseinua oso ona zen, baina lau urtean aldaketak egitea ezinezkoa da. Egitasmo hark zahar ugariko jendartea zuen ardatz, jakinda EAEko gizartea gaztetu baino zahartu egingo dela hurrengo urteetan. Beraz, gaixo kroniko kopuruak gorantz egingo luke. Artetxeren aburuz, egitasmo hark bi filosofia zituen: bata, gaixo kronikoek osasun sisteman eragindako “zama” arintzea, eta bestea, gaixoek (edo zaintzaileek) gaixotasuna kudeatzen ikastea. Gaixo aktiboak hezteak aldaketa kultural handia eskatuko zukeen osasun zerbitzuetan, Artetxeren ustez, gaixoak autonomia handiagoa lortzea nekez onartuko lukeelako medikuak: “Planteamendu hori entzunda mediku batzuk deseroso sentitzen dira. Orain erizainek erabaki asko hartzen dituzte eta horrek ere alergia eragiten die mediku batzuei”. Gaixoa bere gaixotasunaren erantzule bihurtzea filosofia egokia iruditzen zaio, baina urte-tako lana dagoela argi dauka.

hamabostean behin Huerta erizainak deitzen dio. Ospitalerako bidaia, artatzen duen osasun langile taldea agurtzeko baliatzen du, talde osoak ezagutzen du Camino erreteriarra. Ez du, Landak bezala, ordenadore bidezko komunikaziorik eta nola moldatzen den galdetu diogu: “Badakit nora deitu, Huerta erizainaren eta medikuaren telefonoa daukat. Zerbait igartzen badut deitu egiten dut. Ez dut zaharrek bezala egiten, haiek inor ez kezkatzeagatik ez dute deitzen. Berandu baino lehen deitzea da kontua, ez dezatela medikuek gaixoa muga pasata aurkitu”. Eta nola daki Caminok noiz duen deitzeko beharra? “Bi urte hauetan asko ikasi dut, badakit noiz deitu: hankak handituta ditudanean, nekatuta nagoenean, biriketan likidoaren bur-buil hotsa entzuten dudanean...”. Perikarditi-



HOSPITAL DONOSTIA ALDIZKARIA

Argazkian, Jose Artetxe medikua lantaldeko kide batzuekin. Artetxek harreman estua du gaixo kronikoekin. Goizero begiraten ditu pazienteek internetez bidalitako osasun-datuak, eta okerrik bada sendagaiak eta aholkuak ematen ditu.

sagatik ezin du lanik egin eta bizitza lasaia egin behar du. Ebakuntza egin ziotenetik ez du ezustekorik izan. Gaixo kroniko moduan ospitalearekin duen harremanaz zein iritzi duen galdetu diogu: “Poz-pozik nago. Bate-tik, ospitale horretan bizia salbatu didate, eta bestetik, medikuekin eta erizainekin duen harremana oso ona da”.

2005. urtetik ari dira errentagarritasun ekonomikoa eta gaixoenganako arreta hobetuko dituen bideak urratzen. Azken berrikuntza interneten erabilera izan da. Alabaina, begi bistakoa da sareak gaixo batzuei autonomia gehiago eta komunikazio hobea lortzeko balio badie ere, beste batzuek bere kabuz moldatzeko aukera galdu dutela. Joan Migel Landa da horren adibide. Poltsikoko ordenadorea berak erabiltzen zuen eta internet iritsi denean alabak hartu du erreleboa. Gaixo kroniko gehienak zaharrak dira eta belaunaldi horrek harreman gutxi izan du internetekin. Farapi-Evidentis kontsultoriari galdera horixe egin zion Donostia Ospitaleak: internet bidezko harremana erabiliko ez duenari zer eskain diezaiokegu? Kontsultoriak ehundik gora gaixo kronikoei galdera sorta egin zien, baita hainbat bilera egin ere haiekin. Jakin nahi zuten etxean norekin eta zenbat bizi ziren, teknologiarik lotutako zein tramankulu erabiltzeko gai ziren, zerbitzu sozialekin zein harreman zuten... Farapi-Evidentisen ustez, internet aukera askoren artean bat da eta bestelako moduak aztertu eta aurkitu behar dira gaixo kronikoen artatzea ahalik eta merkeena izan dadin eta gaixoak pozik eta ondo zainduak senti daitezen. ■



PERTSONAIA

ARITZ AGIRRE

«Mundua euskara hutsez azaltzerik bada eta Euskadi Irratia horren adibidea da»

Mundu osoa irratian, mundu osoa euskaraz.

| REYES ILINTXETA |

Argazkiak: Dani Blanco



“Utzi behar diogu horrenbeste begiratzeari Madrilén egiten denari eta beste herrialdeetan egiten ari direna ikusi”.

Gaztea zara

Gero eta gutxiago.

Eta, hala ere, bide luzea duzu egina Euskadi Irratian.

Ikasketak amaitu eta segituan hasi nintzen lanean hemen. Zorte hori izan nuen. Unibertsitatean bukatu nuelarik bazegoen praktiken bidetik lana aurkitzeko aukera gehiago egun baino. Horrela hasi nintzen eta harrez geroztik hemen nago. Hori baino lehen, oraindik ikasketak bukatu gabe nituela, irratigintzan hasi nintzen Iruñeko Euskalerria Irratian. Asteburuetan kirolarekin lotutako saioa egiten nuen, *Lehiaren leiboa* izena zuena. Horrez gain, *Euskaldunon Egunkarian* Nafarroako gehigarrian zutabea egiten nuen hilabeteen behin eta, tarteka, kazetari-gai guztiok egin dugun bezala, kolaborazioak aldizkarietan. *Napartheid*-en ere izan nintzen. Oso aberasgarria izan zen. Oso ona izan zen esaldi laburrak egiten ikasteko, esate baterako.

Leioan ikasi zenuen kazetaritza. Zer moduzko esperientzia izan zen?

Leioara joan nintzen euskaraz ikasi nahi nuelako. Esperientzia oso ona izan zen eta gauza asko ikasi nituen. Beti esaten da ikasle garaian, etxetik kanpora zoazenean, festen garaia zabalitzen dela eta horrelakoak. Ni horretan nahiko inozoa izan nintzen goizetan unibertsitatara joaten bainintzen eta arratsaldez kontserbatoriora, musika erdi mailako ikasketak egitera. Leioako unibertsitatean protesta eta mugimendu handia zegoen garai hartan. Alde batetik, akademikoki arazoa izan daiteke, baina beste aldetik gauza asko ikasten dira. Praktikak egiteko aukera gutxi genuen unibertsitate barruan, baina oso irakasle onak zeuden. Kazetaritza zer den erakutsi ziguten. Ofizioa ez, hori gero lantokian ikasten duzu.

Kazetaritza zergatik?

Beti bokaziozkoa izan dudalako. Txikitatik hori izan nahi nuen. Aitak asko maite zuen irratia. Etxean, txikitan nik Iñaki Gabilondo entzuten nuen eta argi neukan horretan aritu nahi nuela. Oso garbi neukan nora iritsi nahi nuen eta motibazio estra hori banuen.

Txistularia era bazara.

Bai, eta momentu batean zalantzatan egon nintzen zein bide hartu: musikari profesionala edo kazetariarena. Tentazio batzuk izan nituen baina gero konturatu nintzen gehiago gustatzen zitzaidala kazetaritza eta gainera neure burua trebeago ikusten nuen kazetari jardunean.

Garai batean Duguna eta Amaiur dantza taldeekin, Basandere fanfarrean eta tarteka Iruñeko

erraldoiekin ere, aritu izan zara. Gaur egun jotzen duzu?

Orain gutxi. Ezkontzatan, lagunentzako aurrekuetan... Esaten didate herdoildutako txistularia naizela. Etxean aritzen naiz, batez ere seme nagusiari ni entzutea eta bere modura jotzea asko gustatzen zaiolako. Nire bizitzaren beste atal bat izan da. Lagun asko egin ditut txistuaren bidetik eta bizipen asko izan ditut. Bi mundu desberdin dira. Batzuetan pentsatu dut nola uztartu zitezkeen biak. Radio Clásican lan eginda, adibidez? Edo musika kritikaria izanik? Azkenean ez dut bide horretatik jarraitu baina egia da, bestalde, bi mundu desberdin dituzunean batak besteari on egiten diola. Eta kazetaritza eta musikaren artean badira gauza berdin asko, batez ere irratian: inprobisazioa, zuzeneko momentuak, huts egin ezineko une hori, erritmoa...

Irratian sartu eta berehala Madrilera joan zinen berriemaile.

Euskadi Irratian praktika kontratu batekin sartu nintzen eta gero ordezkapenen bidetik jarraitu. Ondoren iritsi zen Madrilera joateko aukera. Ordezkapenak askotan izaten dira zuloak tapatzeko proposamenak eta nik nahia-go nuen epe luzeagoko proiektu batean aritu. Madrilgoa oso erakargarria iruditu zitzaidan, han informazio muin handi bat zegoelako eta lan batean murgiltzeko aukera ematen zidalako. Ia lau urte izan nintzen han.

Madril handia da. Aldaketa ere, halakoa?

Erabatekoa. Hemen Gasteizen lehendakaritza-ko lana egiten nuen eta oso lan bizia izaten zen baina Madrilgoa, hori bider hamar izan zen. Gainera zure mediorako kazetari bakarra zara eta zuk antolatu behar duzu dena.

Kanpoko berriemaileak zein irizpiderekin egin behar du lan?

Garrantzitsua da jakitea zuk zer nahi duzun albiste bakoitzetik. Uste dut askotan egin

NORTASUN AGIRIA

Aritz Agirre Escribano (Iruñea, 1977ko abenduak 9)

Euskadi Irratiko informatibo burua da martxotik. Ez da berria karguan, 2006 eta 2009 artean ere han izan baitzen. 96 kazetari daude Euskadi Irratian lanean. Horietatik 40 inguru albistegietan, orain bere zuzendaritzapean lanean. Etxe honetako langilea da 22 urte zituenetik. Hainbat lan egin izan ditu. Besteak beste, Madrilen berriemaile aritu zen ia lau urtez. 2004an Rikardo Arregi Kazetari Gaztearentzako saria eta irrati jardunerako ARGIA saria irabazi zituen. Bi semeren aita, irrati gizona eta txistularia da. Iruñea, Donostia eta Bilboren arteko joan-etorrien artean gelditzen zaion denbora ahal duen bezala banatuz bizi da.

beharko genukeela hamar segundoko eten bat eta aurrean duzun albiste zergatik den albiste pentsatu eta horrek dituen hari muturretatik zeini nahi diozun tira egin. Zure enpresaren ildo editorialaren, zure entzuleek entzun nahi dutenaren eta zure irizpideen arabera egin behar duzu aukera. Batzuetan Madrilen ematen dizuten titular batek zuri ez dizu balio eta egoitu behar duzu Euskal Herrira, Euskadi Irratira eta zure ikuspegira, eta hori ariketa zaila izaten da.

Hedabide gehienek albiste berdintsuei erreparatzen diete ia beti.

Albiste asko eta oso denbora gutxi izaten da hausnarketa egiteko. Albiste berberak hedabide batetik bestera salto egiten dute. Hau izan daiteke gaurko kazetaritzaren krisiaren isla. Izan ere, gaizki emandako informazio bat erreferentziatzeko hedabide batera iritsiz gero, beste gutiak atzetik goaz. Horregatik beharrezkoa da pentsatzea ea begien aurrean dudana benetako albiste den, nahiz eta han eta hemen agertu izan. Hausnarketa orokorra behar da, enpresarena, kazetariarena eta ikus-entzuleena ere bai.

Eguneroko informazioaren oihanean zaila da euskarazko irratia baterako bere produktua saltzea?

Nik uste dut euskarazko komunikabideetan, txikiak garelako, gure plusa zein den bilatu behar dugula. Zer kontatu nahi dugun eta nola. Argi eduki zuk zer eskaintzen ahal duzun beste inork ematen ez duena eta gainera gutizia bat izanen dena. Hori ez da erraza baina, era berean, aldeko gauza bat du honek: hau egiteko posibilitatea ez dagoela baliabideen menpe erabat. Jo behar dugu gure eduki propioak ateratzera, baina ez da erraza. Ari gara, baina gehiago egin beharko genuke.

Aro digitalean bizi gara. Alde horretatik zer moduz dabil euskarazko kazetaritza?

Uste dut olatu horretan ere bagaudela, euskal hedabideok eutsi diogula. Irratia jada ez da soilik ahotsa eta audioa. Irratia da interneten egoitea, askotan irudia izatea, Twitter-en zuk egindako hori ongi saltzea... Niri oso iturri onak iruditzen zaizkit, baina gertatzen dena da albisteak kontrastatzeko ditugun segurtasun baliabideak, protokoloak, filtroak eta babesak gizarte sareetan aritzean ez ditugula edo ez ditugula erabiltzen. Harritzen naiz ikusiz nola izena duten kazetari askok Twitter-en mezu ugari bertxiokatzen dituzten, egia diren ala ez benetan kontrastatu gabe.

Berriz zuzendari postuan. Aldaketa handia aurreko aldiarekin alderatuta?

Bai. Ni beste bat naiz. Nire egoera pertsonala ere desberdina da. Aurrekoan, 2006an, iritsi



“Ni ez naiz irratian pedagogia egitearen fanatikoa. Niri historiak kontatzea gustatzen zait”.



berria nintzen Madrildik. Karga handiko lana da ordu kopuruen-gatik eta erantzukizunarengatik, baina iruditzen zait pertsonalki lasaiago hartu dudala. Tartean Jaime Otamendirekin egin dut lan *Mezularian* eta oso ikasgai ona izan da gauza askotarako. Lehen-go garaiekin alderatuta dugun arazo nagusia krisia da.

EITBren aurtengo aurrekontua 121,7 milioi eurokoa da, iazkoa baino %17 txikiagoa. Krisia gogor kolpatzen ari da?

Publizitatea ere jaitsi egin da. Komunikabideak gizartearen ispi-lua gara, nahi ala ez. Gizartea krisian sartzen denean komunikabideak ere bai. Egoera honetan baliabide gutxiago duzu nahiko zenituzkeen gauza guztiak egiteko. Guk pasa genuen *belle époque* bat eta orain dena merkeago egin behar dugu. Behintzat lantalde estrukturalari eutsi egin zaio. Komunikabide txikietan, zorionez, behar garaietan hobeki moldatzen gara.

Krisiaren ondorioz ETB2ko *Navarra directo* saioa desagertzeaz dago 15 urte antenen egon ondoren.

Oso kontu triste da, hango langile asko adiskide ditudalako, gainera. Nafarroan beharko genuke seinale digital on bat ETB ikusi ahal izateko eta irratian ere azpiegitura egoki bat. Programazioari dagokionez Nafarroak beharko lituzke Nafarroatik eta Nafarroarentzat eskainitako produktuak, baina balantzan jarri behar da horretarako zenbat diru dagoen eta zein aurrekontu duen EITBk murrizketa garaian. Dena den garrantzitsuena bada ziurtatzea programazio orokorrean Nafarroak bere lekua eta garrantzia izan dezala, beste lurraldeekin batera.

Zer eskaini behar du Euskadi Irratiak, hedabide publiko bezala?

Euskal herritar guztientzako gunea izan beharko luke EITBk. Guri dagokigunez, Euskadi Irratiak mundua euskaraz ulertu eta euskaraz bizi nahi duenari eskubide hori bermatu nahi dio. Aukera hori eman nahi dio. Oso garrantzitsua iruditzen zait urte hauetan Euskadi Irratiak euskaldunon eta euskaltzaleen artean lortu



AZKEN HITZA

Euskaraz

“Notizia diren pertsonengana iritsi beharko genuke ohi baino gehiago eta euskara-
ra ekarri, euskal hedabideetara ekarri. Mundua euskara hutsez azaltzerik bada eta Euskadi Irratia horren adibidea da. Gainera, saiatu behar gara euskara ez maila berean jartzen, baizik eta hobesten. Eta hori egin dezake aukera duenak. Informazio garrantzitsu bat ezagutzera eman behar duenak euskara hobetsiko balu momentu horretan euskarak asko irabaziko luke. Lortu beharko genuke euskaraz ez dakienak, momentu batean ikasteko behar edo desioa sentitzea. Euskara hutsezko gutizia batzuk eskaintzea, erdalduna denak senti dezan zerbait galtzen ari dela euskaraz ez jakiteagatik. Katalanek, zentzu horretan inbidia handia ematen didate”.

duen erreferentzialtasuna, zuzendaritza batzuekin zein besteekin. Horri eutsi behar diogu eta bide horretatik aurrera egin.

Zer moduz moldatzen zarete politikariekin? Presio asko?

Beti daude presioak. Komunikabide guztietan egoten dira. Jakin behar da ongi non zauden eta zer den EITB. Hau Legebiltzarrari lotua dago eta bere sorreratik hala da. Ez da fundazio bat BBC bezala. Zuk baduzu lotura hori baina, aldi berean, zu kazetaritza egiteko zaude. Argi eduki behar duzu zure ildo editoriala duzula baina ez dela alderdi batek edo bestek inposatutakoa. Beti egonen dira ildo horretan sartu nahi duten politikariak, baina halako presioei aurre egin behar zaie. Zaindu behar da ordezkartitza denek tokia izan dezaten eta baten batek ez badu bere burua egoki ordezkaturik, adieraztea dauka. Dena den, ez dute horrenbesteko lata ematen.

Mugimendu batzuetatik informazio asko sortzeko ahalmena dute. Hori ere kudeatzeko zaila izanen da batzuetan.

Presioak ez dira soilik alderdi politikoetatik iristen. Presioak mota askotakoak dira eta instituziotatik eta herri mugimenduetatik ere iristen dira desadostasunak. Hor, nire ustez, garrantzitsuena da auzibide batean dauden alde desberdinei ahotza ematea eta denak presente egotea, begiratu gabe nork duen gaitasun handiagoa mediatikoki oihartzuna izateko. Ez dut esaten beti ongi egiten dugunik, baina saiatzen gara behintzat.

Nolakoa izanen da etorkizuneko irratia?

Zuzeneko gauzak eta berrienak dira irratia indar gehiena ematen diotenak eta horrela izaten segituko du, nahiz eta irratia internet bidez entzun. Espero dut irratia eutsiko diola gaitasun horri. Hortik aurrera ordutegiarekin loturarik ez duen irratia edukiak landu behar ditugu, jendeak nahi duenean entzun ditzan. Dena sarean jartzea oso garrantzitsua da, entzuleak nahieran entzun dezala.

Euskadi Irratiak zer berrikuntza bide jorratu nahi ditu?

Irratia asko aldatu da azken urteotan. Formatuak, musika aukeraketak... Dena laburrago egiten da. Onerako eta txarrerako, jada ez dira kasik aditzen ordu erdiko elkarrizketak, adibidez. Oso ohituta gaude pilula txikietara eta oso ongi sartzen dira, baina aldi berean edukia, sakontasuna eta maila intelektual minimo bat eman behar duzu. Hori oso zaila da. Irratia azkarra eta bizia da eta konpainia handia ematen du, baina telebista sormenean asko aurreratu zaio. Irratian gero eta programa gutxiago daude entzulea harritzen dutenak. Sormena garestia eta preziatua da. Saiatu behar gara entzuleek espero ez duten gauzak ematen. Horretarako guk tabikerik gabeko irrati saioak egin nahi ditugu. Gardenak. Zerbait elastikoagoa. Malgutasunez gai batetik bestera pasako diren saioak, eta entzuleen "pultsua" jasoko dutenak kaleko konexioetan. Saio bakoitzak bere eskema du, baina ez dute konpartimentu zurrunka izan behar. Telebistan oso modan dago platoan mugimendu handia egotea. Guk irratian mugimendu hori ere lortu behar dugu.

Gaur egun kazetariak denetik jakin behar du?

Egia da orkestra gizon-emakumerik ez dela existitzen. Dena ezin da jo. Indarrak gauza batean jarri behar dira, nahiz eta gero hori euskarri desberdinetan eskaini. Ezin dugu burua galdu hiru gauzatan. Produktu ona bermatu behar da lehenbizi.

Teknologia berriekin erraza da edonorentzat internet bidezko irrati bat abian jartzea.

Bai, baina erredakzio sendoa behar duzu irrati on bat egiteko. Erredakzioaren kulturak ematen dio irrati bati bere indarra eta izaera, ez zuzendari batek edo administrazio kontseiluak. Horregatik irrati bakoitza irrati eskola bat da. Erredakzio on bat lortzeko oso garrantzitsua da adin desberdineko kazetarien uztarketa. Beteranoek paperezko agenda

potoloa izango dute eta sartu berri direnek segur aski ez dute agendarik izango baina bai ezustean harrapatuko zaituztela mila blog eta eduki berriekin. Nahasketa hori oso aberasgarria da.

Ni kezkatzen naute orain karrera bukatu eta lekurik ez duten horiek. Ez dira gure etorkizuna bakarrik baizik eta belaunaldi batekin kontaktatzeko dugun bide bakarra. Esaten da gazteek ez dutela irratia entzuten eta horrek asko kezkatzen nau. Agian ez dute irratia entzuten lehen bezala, baina bai podcast bidez edo link bat iristen bazaie. Argi dago belaunaldi gazteekin konektatzeko ezinbestekoa dela belaunaldi hori ere lanean egotea.

Irailaren 9an hasiko da zuen programazio berria. Zein berrikuntza datoz?

Programazioak betiko ahots ezagunak eta aldi berean aire berria izanen ditu. *Prime time*an goizeko saioan egin dugu berrikuntza nabarmenena: Maite Artolak hartuko du gidaritza 7etatik 10etara. Maila informatiboa, arratsaldean Ainhoa Etxebestek gidatutako *Mezularia* saioan gaurkotasunaren analisi eta gogoeta zehatza egingo dugu. Gure asmoa da inguruko gaiak jorratzea, baina politika eta ekonomiaren alorretara mugatu gabe. Errealitatea hori baino zabalagoa da eta uste dugu kaleko jendearengana iritsi behar dugula historia gehiagorekin. Irratian interakzioa bultzatzeko erronka ere badugu. Ilusioarekin ari gara lanean. Kutsu modernoagoa ere sumatuko da beste zenbait saiotan: *Hiri Gorrian* saio urbanita Maider Segurola ea Xabier Larrazabal gazteen eskutik, eta beste bi saio berri izango ditugu: Itziar Alduntzinen *Kantu kontari* eta Arantxa Kaltzadaren *Terminus*. Asteburuetan albistegietan osagai berriak Joxe Juan Ugalderen eskutik eta *Amarauna* saioari bere ukitu pertsonala ematen dio Nagore Telleriak. ■



**TALLERES
MITXELENA S.COOP.**



Torno bertikala: Ø 4.200 x 2.000
Fresadora: 10.000 x 3.500
Barrenatze mekanizatua

Talleres Mitxelena, S.Coop.

Eziago Poligonoa • Zikuñaga Auzoa • 20120 HERNANI (Gipuzkoa)
T 943 55 25 12 - 16 • F 943 55 28 16 • info@talleresmitxelena.com

www.talleresmitxelena.com

«Inoiz baino haserreago nago»

Egiptoko Emakumeen Sindikatuko bilera baten ostean hartu gaitu Nawal Al Saadawi (Kafir Tahl, Egipto, 1931) psikiatra eta feminista ospetsuak. Borrokez jositako bizitzaren errepaso honetan, gizarteko kide ahulenen begietatik egin du so, beste behin, Saadawik. Haatik, errealtateak ez du itzali bere begien dirdira.

| ANE IRAZABAL |

Argazkiak: Hamada Elrasam

Emakume arabiarren askapen mugimenduen aitzindaria zara. Zure belaunaldiko emakume gehienek ez zuten sistemaren kontra egin, zergatik altxatu zinen zu?

Herrixka txiki batean jaio nintzen, familia handi batean. Bederatzi seme-alaba ginen, sei alaba eta hiru seme. Txiki-txikitatik jabetu nintzen klase banaketak, erlijioak eta sexuak eragindako zapalkuntzaz. 6 urterekin ablazioa egin zidaten eta oso ondo gogoratzen dut “Jainkoaren aginduz” gizonezkoak emakumeen gainetik zeudela esan zidaten lehen eguna. Bestalde, 10 urterekin ezkondu egin nahi izan ninduten, eta orduan finkatu zen nire kontzientzia feministaren oinarria. Une hartan konturatu nintzen nire bizitzaren jabe ez izateko arriskua nuela eta gogor egin nuen erabakiaren aurka. Ezkontza atzeratu arte jateari utziko niola esan nien gurasoei, eta ama nire alde jarri zen. Azkenean, baita aita ere. Zorte handia izan nuen gurasoekin. Garaipen txiki horrek bidea ireki zien ondoren hasitako hamaika borrokei. Nire ahizpek haien patua onartu zuten, nik aldiz ez.

Zer ekarri zuen apurketa horrek?

50eko hamarkadaren hasieran Kairora etorri nintzen ikasketak jarraitzera. Hemen medikuntza ikasi nuen, eta hein handi batean, nire egoera bertsuan zeuden emakume asko eza-gutu nituen. Militantzia eta formakuntza eskutik emanda joan ziren, eta hainbat talde feministetan parte hartzen hasi nintzen. Unibertsitatea amaitu bezain laster, Egiptoko Osasun Publikoko saileko zuzendari izendatu ninduten. Klase zein genero zapalkuntzak emakumeen osasunean zuen eragina aztertzen hasi nintzen orduan.

Eta Firdaus-ekin egin zenuen topo...

Nire bizitzan bada inflexio puntu bat, Firdaus ezagutzeak eragin zuena. 1972an, Osasun Publikoko sailetik bota ninduten, *Emakumeak eta Sexua* liburua idatzi ondotik. Egiptoko emakume presoek pairatzen zituzten neurosiak aztertzen hasi nintzen, eta Qanatir kartzelan zegoen Firdaus izeneko emakume batez hitz egin zidaten. Gizon bat akabatzeagatik heriotza zigorrera kondenatua zegoen, eta egoera horretara iristeko zer gertatu zen bere ahotik jakin nahi izan nuen. Firdaus berehala

hil zuten, baina haren egia *Woman at Point Zero* liburuan islatu nuen, nire belaunaldiko emakumeen erradiografia gordina bezain egiazkoa. Askotan esan ohi dudanez, haserre baten kronika da *Women at Point Zero*.

Paradoxikoki, 1981ean berriz ere itzuli nintzen kartzela hartara, baina preso bezala. Anwar el-Sadat presidentearen kontra egindako kanpainen ondorioz espetxeratu ninduten.

Hiru hilabetez bakarrik izan nintzen Qanatirren, Sadat erail ostean nire aurkako karguak kendu baitzituzten.

Zure gazte garaitik gaur egun arte, handitu ala murritzut egin dira Egiptoko emakumeek lortutako eskubideak?

Emakumeen egoerak hobera egin du kasu askotan. Nire alaba, adibidez, ni baino askeagoa da. Hiru aldiz ezkondu eta banandu naiz ni; hark ez du ezkondu nahi izan. Bi seme-alaba ditu nik; hura berriz, haurrak nahi dituen ala ez erabakitzeko jabe da. Nik AEBetara alde egin behar izan nuen hogeitaz, islamistek haien zerrenda beltzean jarri nindutelako; alabak berriz, nik bezala militatzen du eta ez du hanka egiteko beharrik izan. Aske izateko prozesua oso traumatikoa izan da

“10 urterekin ezkondu egin nahi izan ninduten, eta orduan finkatu zen nire kontzientzia feministaren oinarria. Ezkontza atzeratu arte jateari utziko niola esan nien gurasoei”



gure belaunaldiarentzat, odola eta malkoak isuri behar izan ditugu, eta ondorengoek etekina atera diote gure borrokari.

Nolanahi ere, ikuspuntu politiko eta ekonomikotik atzera egin dugula irizten diot. Kolonialismo ekonomikoaren eta fundamentalismo erlijiosoaren ondorioz, eredu kapitalista gogortu egin da. Egiptoren kasuan, emakumeak, umeak eta pobreak inolako babesik gabe daude. Eredu patriarkala esparru guztietan errotuta dago eta ondorio fisiko zein psikologiko tamalgarriak ditu emakumeengan.

Emakumeen ebaketa genitala, adibidez, ez da lortu ezabatzea.

Gai horretan ez dugu aurrera egin. Oraindik ere emakume egiptoarren %90ek baino gehiagok pairatzen dute. Ablazioa debekatzen duen legea onartu zen, baina ez da jaitsi praktika jasaten duten emakumeen kopurua. Arazoa da gobernuak ez duela gaia serioz hartzen. Egiptoko irudia garbitzeko estrategia baino ez zen izan legea, baina ablazioa errotuegi dago gure gizartean. Gaur egun ere zentsura pairatzen dut Egiptoko telebistetan, gaiari buruz hitz egin nahi dudanean.

Edonola ere, lortu ditugu garaipen txikiak. Orain arte amaren abizena jartzea legez kanpoko zen Egipton, beraz, aitarik gabeko haurrak ez ziren legítimoak. Bortxaketen ondo-

rioz jaiotako umeek edo senarrik gabeko familiek ez zuten hiritartasun ziurtagiririk. Hamarkadetako borroka luzearen ostean, legea aldatzea lortu dugu eta senarrik ez duten emakumeei aitortu zaie seme-alabei haien abizena jartzea.

Zer da zuretzat feminista izatea?

Egia esan, nik ez dut feminismo terminoa erabiltzen. Egiptoarra naiz eta nire ama hizkuntza arabiera da. Feminismoa ingelesezko erreferentzia da, beraz, nahiago dut *Tabir al-Mar'a* (emakumeen askapena) esan. Eta emakumeen

askapena, nire ustez, ezin da banandu herrialde edo gizarte baten askapen mugimendutik. Feminista izatea da askatasunaren alde borrokatzea, emakumeak, gizonak, pobreak, etorkinak, haurrak... Denak izan gaitezten esku-bideetan parekoak. Baina guztion adimena askatu

ahal izateko, gure herria ere atzerriko kolonialismotik eta inbasio islamikotik libratu behar dugu.

Emakume askorentzat erreferentzia dira zure liburuak. Zalantzarik gabe, feminismo arabiarra Mendebaldeko korronteekin erkatu duzu. Zer iritzi duzu Mendebaldeko feminismoari buruz?

Niretzat ez da inoiz erreferente bat izan. Are gehiago, oso kritikoa izan naiz harekin. Nire ustez, AEBetako eta Europako feminista

“AEBetako eta Europako feminista gehienek patriarkalismoari buruz baino ez dute hitz egiten. Ez dute kapitalismoa edo klase zapalkuntza kritikatzeko. Baina zer da kapitalismoa, patriarkalismo ekonomikoa ez bada?”



gehienek patriarkalismoari buruz baino ez dute hitz egiten. Ez dute kapitalismoa edo klase zapalkuntza kritikatzeko. Baina zer da kapitalismoa, patriarkalismo ekonomikoa ez bada? Arazoa da feminista gehienak kapitalista hutsak direla. Hogeitaz irakaslea izan nintzen AEBetan, eta izugarritzko eztabaidak izan nituen adiskideekin. Germaine Greerek, adibidez, beloa eta ablazioa onartu zituen Egipton, emakume egiptoarren benetako nortasuna zela argudiatuz. Hori al da Mendebaldeko feminismoak guri eskaintzeko daukana?

Erlatibismo kulturalaren arriskuak, alegia...

Hala da. Askotan galdeztzen didate *hijab* edo beloa daraman emakumea feminista izan al daitekeen. Nik zera erantzuten diet: biluzik doan emakumea feminista da ezinbestean? Nire ustez, gorputza estaltzea edo biluztea txanpon bereko bi aldeak dira. Emakume bat biluzik egoteak ez du esan nahi askea denik. Kontua da, zergatik ezkutatu edo erakutsi behar dugu gure gorputza ezer aldarrikatzeko? Bi kasuetan haragi zati hutsa balitz bezala jokatzeko dugu.

Burua estaltzearen aurkakoa naiz, baina baita biluztasuna askatasunaren sinbolotzat jotzearen kontrakoa ere. Halere, emakume erlijioso bat burua estalita ikusten badut eta feminista dela esaten badit, aurka egingo diet. Izan ere, nola sinetsi daiteke jainko zapaltzaile batengan? Hamarkada luzez aztertu ditut Judaismoa, Islama eta Kristautasuna, munduko hiru erlijio monoteista nagusienak, eta

“Feminista izatea da askatasunaren alde borrokatzea, emakumeak, gizonak, pobreak, etorkinak, haurrak... Denak izan gaituzten eskubideetan parekoak”.

“Emakume bat biluzik egoteak ez du esan nahi askea denik. Kontua da, zergatik ezkutatu edo erakutsi behar dugu gure gorputza ezer aldarrikatzeko? Bi kasuetan haragi zati hutsa balitz bezala jokatzeko dugu”

zoritxarrez, emakumeak zapalduta mantentzeko interesa dute hirurek.

Hain zuzen, Antzinako Egipton jainkosek zuten garrantzia nabarmendu ohi duzu. Zibilizazio hura ez al zen patriarkala?

Nik beti defendatu dut ezetz. Antzinako Egipton Noot izeneko jainkosa geneukan, zeruko jainkosa. Bere senarra, Geep, lurreko jainkoa zen. Baina esklabotza sistemaren sorrerarekin, senarra zeruko jainko bilakatu zen eta emaztea, berriz, lurrekoa. Haragizkoa egin zuten Noot orduan. Denborarekin, bere izaera jainkotiarra galdu zuen emakumeak eta deabruaren sinbolo bilakatu zen. Matriarkalismetik patriarkalismoara emandako bira da hori. Erlijio monoteistak horren ondorio dira, eta sorreratik bekatutzat jo dute ezaguera.

Borroka feminista eta politikoa bat egin dituzu betidanik. Nola ikusten duzu Egiptoren egungo egoera?

Memoria daukadanetik borrokatu dut herrialde aske eta justu baten alde, eta nekatuta nagoela ez dut ukatuko. Baina aldi berean inoiz baino haserreago ere banago. Duela bi urte askatasunaren alde kalera atera ginen milioika egiptoar, eta zein izan zen ondorioa?

Diktadura batetik Anaia Musulmanek gidatutako erregimen islamista batera pasa ginen. Orain, trantsizio demokratikoa berriz ere hasteko aukera daukagu. Inoiz baino arrazoi gehiago ditut askatasunaren eta estatu laiko baten alde borrokatzen jarraitzeko. Haatik, erradikalegia naizela entzun behar dut hedabideen partetik. Sentitzen dut, baina ez naiz kazetariez, irakasleez eta medikuez fio.

Zu psikiatra zara, ordea.

Bizitzaren kontradikzioak! Medikua naiz, baina ez dut inoiz nire profesioa gustuko izan. Medikuntzari buruz dakidana ez dit unibertsi-tateak eman, bizitzak berak baizik. Gaur egungo hezkuntza sistemak ezagutzaren zatiketa besterik ez du ekarri. Sormen naturala deuseztatzen du. Gizakiak esku-bidez behar ditu jatekoa, sexua eta kultura askea. Egipton horietako bakoitza izateko borrokatzen dihardugu oraindik. ■





Zientzia eta teknologia guztia *Elhuyar* aldizkarian

aldizkaria.elhuyar.org

Urteko harpidetzarekin, edizio digitala doan

- ▣ Paperean dagoen edukia formatu digitalean
- ▣ Edizio digitala deskargatzeko aukera
- ▣ Eduki osagarria irakurtzeko gunea: iturriak, bibliografia, bideoak, gaiarekin lotutako albisteak
- ▣ Edukiei buruzko iritziak emateko aukera
- ▣ Harpidetzaren datuak kudeatzeko aukera

Harpidetu

- ▣ **Merkeagoa** delako: kioskoan baino merkeago
- ▣ **Erosoagoa** delako: zuk erabakitzen duzu non jaso aldizkaria (etxean, lantokian...)
- ▣ **Urteko zenbaki guztiak** irakurri ahal izango dituzulako
- ▣ Aldizkaria zer euskarritan irakurri nahi duzun aukeratu dezakezulako: **paperean zein digitalean**

Harpidetza telefonoz egiteko, hots egin
+34 943 36 30 40 zenbakira.
Harpidetza Internet bidez egiteko, sartu
aldizkaria.elhuyar.org webgunean edo idatzi
mezu bat **harpidetza@elhuyar.com** helbidera



elhuyar
Zientzia



INIGO AZKONA

**Asier
Blas
Mendoza**



EHUKO
IRAKASLEA

Baltikotik Kataluniara

UDARA HONETAN Letonian inoiz baino errazagoa izan zait esplikatzea euskal herritarra naizela, ez ezagunagoak garelako, orain katalanen berri dutelako baizik. *Dienak*, Letoniako lehen egunkariak, azkeneko urtean bi aldiz eraman du azalera Kataluniako mugimendu subirano zalea, eta ez da azkena izango. Izan ere, datoren irailaren 11n katalanek 400 kilometro inguruko giza katea egingo dute independentzia aldarrikatzeko. Erreferentea Baltikoan bilatu dute. 1989ko abuztuaren 23an, ia bi miloi pertsonak Tallinn (Estonia), Riga (Letonia) eta Vilnius (Lituania) batu zituzten 600 kilometro baino gehiago zituen giza katean. Horrela, hiru herrialdeen arteko elkartasuna eta askapen nazionala aldarrikatu zituzten. Badute motiborik Baltikoan mobilizazio hartaz harro egoteko, eta noski Via Catalanak ziurtatuta dauka bere oihartzuna harrotasun hori pizteko balioko duelako.

Egun European dagoen proiektu sezesionista sinesgarriena da Kataluniakoa. Bi egiturazko dimentsiok azaltzen dute gertatutakoa. Lehenengoa nazionala da, Kataluniako gehiengoak burujabetasun gehiago nahi zuen Espainia federal eta nazionalki anitzean. Bigarren dimentsioa ekonomikoa da.

Lituanian, bertako unibertsitatean lan egiten duen irakasle katalan batek esplikatutit Via Catalanara joateko asmoa duela. Zazpi urte bere herrialdea bisitatu gabe egon ostean, uztailan egon da Katalunian. Joan aurretik ondo ezagutzen zuen mugimendu independentista eta bere hitzetan “lau katu ziren”. Orain gauzak desberdinak dira, herrialdea aldatu egin da eta horren froga gisa Bartzelonako Gerriko Gorria aipatu dit: “Bandera independentistek hartu dituzte balkoiak, non eta PSCren bertsio espainolistenaren gotorlekuetan”.

Egun European dagoen proiektu sezesionista sinesgarriena da Kataluniakoa. Bi


egiturazko dimentsiok azaltzen dute gertatutakoa. Lehenengoa nazionala da, Kataluniako gehiengoak burujabetasun gehiago nahi zuen Espainia federal eta nazionalki anitzean. Bigarren dimentsioa ekonomikoa da. Kataluniak hamarkadak daramatza defizit fiskala pairatzen eta horrek suposatzen du metatutako diru kopuru osoa etengabe hazkundera dagoela. Errealitate honek herritarren artean, izan nazionalista katalana edo ez, “Kataluniaren aurkako bidegabekeriaren” pertzepzioa sakondu du.

Halere, tentsioek ez dute eztanda egin egoeraren arabera bi faktorek topo egin duten arte. Krisi ekonomikoak defizit fiskalak suposatzen duen irainaren tamaina handitu eta herriaren gehiengo zabala kohesionatu du sentimendu nazional desberdinen gaintetik. Hain zuzen ere, Baltikoko herrialdeetan gertatu bezala, eslaviarren artean independentziaren alde egin zutenak biderkatu egin ziren bizitza hobeago baten esperoan. Eta bigarren iraina, 2006ko Estatut-arekin gertatutakoa. Kataluniako Parlamentuak %88,8ko babesarekin onartu zuen estatutuak herri-proiektua iragartzen zuen, akordio zabala katalanen artean autonomian sakontzeko eta Espainiaren baitan egokitzapena lortzeko. Espainiako Gorteek estatutua murriztu eta gero, Espainiako Auzitegi Konstituzionalak baliogabetu zuen partzialki parlamentu demokratiko bik (Katalanak eta Espainolak) eta herritarrek erreferendumean hartutako erabakia. Arazo nazional eta ekonomikoa izatetik, arazo demokratikoa izatera pasatu zen Kataluniakoa. Katalan herritarrek beraien etorkizuna erabaki nahi dute, baina Espainiako erakundeek ukatu egiten diete eskubide demokratiko hau argudio nazionalista espainolak erabiliz. Ukazio honek independentismoaren hazkundera ekarri du, izan ere, partikularra (autonomia gehiago nahi izatea) balore unibertsala bilakatzen denean (erabakitze eskubide demokratikoa) hegemonia politikoa lortzen da. ■





BOTILA ez da erdi hutsik
BOTILA ez da erdi beterik



BOTILA Hautsia da

Jose Ignazio Ansorena

TXISTULARIA ♦



DANI BLANCO

Kale buelta

BERRIA egunkarian abuztu erdian irakurria: “Kale bueltarik gabeko salbea gaur Azkoitian”. Ez zuen adierazi nahi, krisia zela eta, Salbearen ondoren, azkoitiar kristauak baxoerdiak hartzera aterako ez zirenik, baizik eta antzinatik eta urtero Andra Mariaren egunean, Udaletxetik elizara bidean Korporazioak burutzen zuen ibilaldi solemnea bertan behera geratuko zela aurrean.

Barruko artikuluaen titulua: *Tradizioaren korapiloa askatzen*. Eta jarraian alderdi guztien iritziak ia ezinbestez tradizio hori erlijioarekin lotzen. Ez da horrela baina. Tradizioan Udal Batzak erabakitzen duenean norabait Korporazio gisan joatea segizio errituala eratu ohi du. Gutxienez XVIII. mendetik datorren eredia honelakoxea izan da: aurretik txistulari taldea eta klarinak *Alkate soinua* jotzen, udaltzainak eta mazolariak (denak galaz jantzita); atzean zinegotzi gazteena Udalaren ikurrina eskuetan duela, eta honi jarraiki bi errenketan beste zinegotzi guztiak. Azkenean, alkateordeak alboetan, Alkatea zumezko uztaia edo aginte makila eskuan duela.

Segizio hauek tankera askotako ospakizunetan egin ohi dira. Biltzar Nagusiak herri batean elkartzean, esaterako. Gogoangarri batzuk: 1918an, Oñatin Eusko Ikaskuntzak eratutako I. Nazioarteko Kongresuan edo 1931ko ekainaren 14an Lizarran, “Estatuto Vasco-Navarro” deitu zena onartzeko antolatutako Batzarrean ere horrela agertu ziren Udal ordezkari asko. Franco hil berrian, Gasteizen Autonomia Estatutua eskatzeko egin zen Udalen bilkura eta manifestaziora horrelaxe azaldu ziren gehienak.

Baita ekitaldi zibil, politiko edo erlijiosoetarako gonbidapena Udal Batzak onartu duenean ere.

Alegia, agerpen erritual hauek “zibil eta laikoak dira”. Kontu desberdina da zertara edo nora joateko erabakia diren. Elizara joateko Udal Batzak ez badu nahi, ongi dago —laikotasun kontua baino areago kortesiazkia dela uste badut ere— baina bila ditzala bestelako aukerak herritarren aurrean azaltzeko agintaritzak ikur-ekin. Oso interesgarria delako jendearen aurrean agintariak agertzea eta herriaren begiradari eutsi behar izatea. Kontrol eta partizipazio moduak dira. Antropologoen garbiro azaldu dute honen balio sinbolikoa: agintariak gogoraztea —sentiaraztea— herritarrengandik datorkiela duten boterea. Boterea bakarrik ez, itzala behar dutela, benetako autoritatea. Ez direla kudeatzailerak, zerbait gehiago baizik, ordezkatzeko eginkizuna dutelako. Ez direla soilik euren ideiak defendatzeko aukeratuak izan, dimentsio publikoa baitu euren postuak. Herritarrei ere, esandakoaz gainera, aukeratu dituztenak “bere” eta “hurbileko” sentitu arazten die, pertsona talde hori bizi den kulturaren ongi integratua dagoen kode estetikoaren erabiliz.

Gai sakona da eta planteamendu osoagoa merezi du. Sentsibiltate ekologikoa duteneko kontuan hartu behar dute kultur ekarpenetan *Tximeleta efektua* ere gerta daitekeela. “Kendu eta ez jarri, gure poltsa *c’est fini*”. Garbi gera bedi, gutxienez, ez gaitz kale buelta bati buruz ari. Tradizioaren korapiloa askatzeko funtamentua behar da. ■



DANI BLANCO



**Kattalin
Miner**



KAZETARIA

Motzean esana

LAGUN filosofo batek azaldu zidan behin, egia bat, are eta egiago dela, are eta motzago esan daitekeenean. Are eta hitz gutxiago behar duzunean hura azaltzeko, hura egiago dela. Niri ordea, argudiatzea gustatzen zait, eta hori omen nire akatsa. Egia are egiago baita are eta argudio gutxiago eskatzen dituenarekin ere.

Niri baina, egia ezer gutxi interesatzen zait. Argudioa jolasa dela iruditzen zait, eta subjektibitatea nire bandera; akaso. Hala ere, saiatu saiatzen naiz aurrean dudana, nire argudioez blaitzen, nolabait, amaieran

egia bateratua eraiki dezagun, edo, esan dezagun egia, nirea sinetsi dezan.

Erronka ederra dut aurretik bada, nirea kontatu eta sinestatzeko, gero eta karaktere gutxiagoan; motzean esana, hain zuzen. Eta larritzen hasi naiz —eta hasi behar zenukete—, pentsatuz, nireak diren subjektibitate horiek guztiak, orain gero eta motzago azaltzeko kapaz izango banaiz, agian are egiago bilakatzen hasiko direla. Eta hori bera arriskutsua izan daiteke; egiagitan esaten dizuet. ■



HEMEROTEKA

Idazle eta irakasle kataluniarrok okerrean pentsatzen idatzi du *El Punt Avui*ko zutabea. Espainiak Katalunia indarrez hartzeko aukeraz gogoeta egin du, Espainiako Estatuak Balkanekin alderatuz. Hainbat pasarte ekarri ditugu gurerara.

Zein izango da espainiar gatazkako Bosnia?

Héctor Lopez Bofill

♦ IDAZLEA ETA IRAKASLEA

HOTZEAN aztertuz gero, autogobernua bortxaz hartzea da Kataluniaren independentzia ekiditeko Espainiako Estatuari geratzen zaion aukera bakarra. Zenbait sektoretako elite politiko katalanen traizioak ere (izan borondatez, diru truke, edo haien hegemonia mantentzeko Espainiaren menpeko bihurtu diren eta frankismotik datozen egitura ekonomiko eta mediatikoen presiopean), ez luke herritarren gurari geldiezina oztopatzerik izango.

Agian, aipatu astakeriak tarteko fase bat behar luke, esku-hartze arinago bat, aurrekontuei dagokiena, defizita bete ez denaren aitzakian. Baina, herritarren borondatearen eta inposatze erregimenaren arteko kontraesanak indarkeria erabiltzera eramango du Espainia, historian hainbatetan gertatu diren hilketak errepikatzeak arriskuak Kataluniako erdi-mailako klaseak kikilduko dituelakoan.

Eta nazioartea? Eta Europar Batasunak mende erdi honetan osatu duen bake eta segurtasun eremua? Okerrena pentsatzeak, haiek “biziraupen nazionala” deitzen dutena jokoan badago, Espainiak makineria guztia martxan jarri dezakeela aurreikustera garamatza. Nazioarteko mobilizazioak abiatzerako, beranduegi litzateke.

Izan ere, ez gara soilik Kataluniaz ari. Aznarrek berak, orain salbatzaile gisa agertzeko bere ondorengoaren [Rajoyren] aurka lan ezkutuan ari denak honakoa aurreratu zuen, 2005ean Kataluniako Parlamentuak Estatutuaren erreforma proposamen bat onartu

zuenean: “Espainaren balkanizazioa hasi da”. Jugoslaviaren mamuak hartu du Iberiar Penintsula, bertako zati aberatsenetako baten independentziarekin, erdialdetik zuzendutako lapurretak gainontzeko lurralde errentagarrietan jarraituko baitu. Kontzertu ekonomikoa (euskaldunen independentzia nahia oztopatzen duen traba bakarra) erortzen ikusiko lukeen Euskal Herriak, eta gainontzeko Herrialde Katalanek, (Valentzia eta Balear Uharteak) espainiar erreinuan jarraituko lukete are makturarazi eta estutuago.

Gehiengo nazionalista duen zein lurraldek nozituko du min gehien? Nafarroak? Herrialde Valentziarrak?

Nola begiratzen den, Kataluniarekin lotutako pentsamendu negatiboa leundu liteke, Esloveniaren paperak jokatu duela onartzen badugu: banaketa azkar eta eraginkor bat, hamar eguneko gatazka eta hildako gutxi batzuekin. Zorigaitza Espainiako gainontzeko zatietara zabalduko da, non Gaztela indargabe, txiro, ustel eta isolatuak bere gorroto guztiz astinduko dituen geratuko zaizkion indar apurrak. Zein izango da, beraz, espainiar gatazkako Bosnia? Gehiengo nazionalista duen zein lurraldek nozituko du min gehien? Nafarroak? Herrialde Valentziarrak? ■



BERTSO BERRIAK

Delegatuaren lanei jarriak



DANI BLANCO

Aitor Sarriegi

♦

Doinua: Frantses euskaldun bat.

Biktimekiko errespetua harturik ideario Urquijo jauna gurutzadara doa amorru-jario. Pablo ta Jone ere zentzuak biktimak direla dio ta haiekiko errespetuak ez al du berdin balio?

Inkisidore berri bat dabil euskal jaietan barrena hark eskatu du bilbotarrena eta laudiotarrena. Epaile batek onartu berriz besapean zekarrena eta ez dakit larriagoa ez ote den bigarrena.

Zalantza gabe serioa da berez zor den begirada baina mina ere umorez hartzen ohitu egin gara jada. Jaun hauengandik aske izateko egin behar da bultzada ta bitartean festetarako maskota berri bat bada. ■



Ametsezko munduak, komisario berriaren eskutik

Abuztuaren 29an hasi eta irailaren 29ra luzatuko da Getxophotoren 7. edizioa. Nazioarteko 15 argazkilari inguruk aurkeztu dituzte euren lanak Getxoko kaleetan, hori baita erakustaldi honen ezaugarri nagusietako bat, argazkiak publiko zabalarari eskaintzea. Ametsak ditu ardatz edizio honek, datozen hiru urteetan landuko den Bestelako Munduak gaiaren barruan. Christian Caujolle kritikari eta komisarioa arduratuko da datozen edizioen programazioaz.

| MYRIAM GARZIA |

JOKIN AZPURU zuzendariaren hitzetan, bide luzea egin du Getxoko nazioarteko argazki jaialdiak. Begi handi argazkizaleen elkarrekin sortu zuen duela zazpi urte, eta Euskal Herrian beste jaialdirik ere baden arren –Andoaingo Argazkialdia eta Gasteizko Periskopio kasu–, hitzordu saihestezin bila-

katu da zaleentzat. “Etengabeko bilaketan eta garapenean aritu gara urteotan. Gurea bezalakorik gutxi dago, espazio publikoaren edo euskarri berrien erabilpenari dagokionez. Gainera, minoriak alde batera utzi eta publiko zabalarengana jotzen dugu”. Hala ere, erakusketa publiko hauek ez dira nonahi jartzen,



World, Ruud Van Empel.



Ezkerrean, *Les Grandes Vacances*, Bernard Faucon. Eskuinean, *Flying Houses*, Laurent Chehere.

normalean herriko aisialdirako espazioak aukeratzen dituzte. Ereagako hondartza, oinezkoen Basagoiti kalea, San Nikolas plaza edota Algortako Portu Zaharra antzaldatu egiten dira argazki hauen erakustoki bilakaturak. “Espazio publiko horien bestelako erabilpena aldarrikatzen dugu”, diosku Azpuruk.

Christian Caujolle komisario berria aukeratu dute aurtengo edizioan, eta datozen hiruen programazioa ere haren esku dago. Berak aukeratu du, hain zuzen, datozen urteotako gaia, Bestelako Munduak. Ildo honetatik, ametsen munduan murgilduko dira aurtengo ekitaldian parte hartuko duten argazkilariak.

Caujolle, World Press Photoko epai-mahaiko kide da eta Kanbodiako PhotoPhnom-Penh aretoa zuzentzen du, besteak beste.

Gazteen aldeko apustua

Argazkilari europarrak eta amerikarrak bilduko ditu nagusiki aurtengo Getxophoto jaialdiak, baina aipagarria da argazkilari asiarren aldeko apustua egin duela Caujolle komisarioak. Ondo ezagutzen du eremua, bestalde. Adinari dagokionez, “oreka bilatzen saiatzen gara” aipatu digu

Jokin Azpuruk, “alde batetik, maila handiko argazkilariak erakartzen saiatzen gara baina hain ezagunak ez izan arren, etorkizun handikoak diren argazkilariak ere programatu ditu Caujollek”. Harit Srikhao 17 urteko argazkilari tailandiarraren kasua azaldu digu Azpu-

donostiakultura.com

**ANTZERKIA
TEATRO**



LOS MIÉRCOLES NO EXISTEN
GORKA OTXOA, DIANA PALAZÓN,
LUIS CALLEJO, WILLIAM MILLER

Antzoki Zaharra

Irailak **04-08**

20:00. 06, 07, 20:00 + 22:30

● gaztelania



EL NOMBRE DE LA ROSA

KARRA ELEJALDE, JUAN JOSÉ
BALLESTA, MIGUEL MUNARRIZ,
KOLDO LOSADA

Victoria Eugenia

Irailak **05-08**

20:00. 07, 20:00 + 22:30 ● gaztelania



TERAPIAK

VAIVÉN PRODUCCIONES
& LA PAVANA

Antzoki Zaharra Teatro Principal

Iraila **12-15** septiembre. **20:00**

● euskara

SARRERAK

Leihatilak Taquillas - www.kutxasarrerak.net
BAZKIDEAK -10%





ruk. Srikhao Bangoken bizi da eta 2009ko estatu kolpea zela eta, 10 km egin behar izan zituen bere etxerako bueltan, gau luze hartan. Ibilbide latz eta arriskutsu horren berri ematen digun *Familiar Things* seriea dakarkigu.

Argazki erakusketaz gain, Getxophotok hainbat jarduera antolatu ditu iraileko lehen astebururako. Aurtengo berritasun gisa, Itxialdia izeneko jarduera antolatu dute abuztuaren 30erako. Egun osoz, argazkilarien

arteko topaketak, hitzaldiak eta tailerrak antolatuta dira. Parte hartuko duten argazkilarien artean ditugu: Jordi Socias (*El País Semanal*eko editore grafiko ohia); Monica Allende (*Sunday Times Magazine*eko editore grafikoa); Cristina de Middel argazkilaria; Blanca Berlin galerista; Aitor Ortiz euskal argazkilaririk ezagunetakoa; edota Iñaki Domingo eta Luis Diaz Diaz www.30y3.com argazkigintza garaikidea bultzatzen duen webgunearen



- 1:
C. De Middel.
- 2:
Familiar Things,
Harit Srikhao.
- 3:
Hyper,
Denis Darzacq.
- 4:
Sleep elevations,
Maia Flore.
- 5:
Matrimania,
Mahesh.
- 6:
Les Sommeils,
Jean Louis Tornato.



Joseba B. Lenoir · Gasteluzeko Hotzak · The Lucilles · Norman GAZTELUPEKO HOTSAK www.hotsak.com		Juan Ortiz Trio · Broken Brothers Brass Band · Chris Kase · Iñaki Rodriguez · Ander Garcia · Los Wachisneis · Javier Lopez Jaso & Marcelo Escrich Quartet · Rafael Santana Trio ERRABAL JAZZ			



Goian, Wang Lin-en argazkia. Behean, *The Man Machine*, Vincent Fournier.

arduradunak. Bestetik, aipatu beharra dago Jesus de Etxebarría XX. mende hasierako euskal argazkialariaren artxibo ineditoa ere erakutsiko dela.

Christian Caujoller bereziki interesgarria iruditzen zaio Getxophotok espazio publiko baliatzeko duen modua. Bestalde, “hiru urteko epeak gauzak hobeto lantzen laguntzen du”. Argazkilari frantziarrak nabarmentzen dira Caujollek egindako programazioan, baina mundu asiarra ondo ezagutzen du komisarioak, eta horregatik, Txina, Tailandia eta Burkina Fasoko argazkilari gaz-

teen lanak ere ikusiko dira aurtengo edizioan. “Gazteen aldeko apustua ez da nolanahikoa, azken finean euren esku baitago argazkigintzaren alderik gaurkotuena. Irudien sortuntzan norabide berriak bilatzen saiatu naiz”, azaldu digu Caujollek. “Irudi imaginario horiek sortzea bada errealitatea eraldatzeko modu bat. Argazkigintza errealitatearen lekukotza delako, baina, inolaz ere ez objektiboa”.

Edizio honetan programatutako egileen artean dauden antzekotasunak handiak dira, baina batez ere, “egungo mundu garaikideari buruz hitz egin eta hausnartzen duten egileak dira”, Caujolleraren hitzetan.

“Gure egungo mundu hau kolokan edota zalantzan jartzen duten autoreak interesatzen zaizkit. Identitatea, hiriarekin

edota ingurune urbanoarekin daukagun harremana, gorputza, kontsumoa edota trukaketa dira jorratzen dituzten gaiak”, esan digu komisarioak. Bestetik, Getxophoton parte hartzen duten argazkilarien jakin-min estetikoak kolorearen erabilpenari lotuta dago. “Zuri-beltzez eginez gero, ez lirateke berdinak izango, ez lukete erreakzio edota hausnarketa bera eragingo. Egungo argazkilariak kolorea du baliabidea, kolorearekin konposatzea gustatzen zaie. Eta hori argi islatuta geratzen da aurtengo Getxophoto edizioan”. ■



Morauren arrainontzi musikala betetzen ari da

Duela sei hilabete ekin zion Andoni Tolosa Morauk disko berri bat osatzeko sortze prozesuari. Ez edonola ordea: pausoz pauso, inspirazioaren fruituak lagun eta jarraitzaileekin elkarbanatzen dihardu horretarako prestatutako webgunean.

Hamasei abestiren zirriborroa osatu ostean, amaitutzat eman berri du Arrainentzako Himnoak proiektuko lehenengo fasea.

| LANDER ARRETXE |

SEI HILABETEZ, grabatu ahala, abestien beta bertsioak sarera-tu ditu hernaniarrak. Horrekin batera, 80 blog sarrera eta 13 ikus-entzunezko zabaldu ditu jada, sormen prozesuarekin loturikoak zein bestelakoak: abesti baten letraren azalpenarekin hasi eta kantautore hasiberrientzako aholkuak eskaintzeraino.

Sarean edukiak zabaltzea ez da norabide bakarreko ekintza. Abestien sorkuntza jarraitzearekin batera, Twitter eta Facebook-eko lagunek hainbat iradokizun, aholku eta iritzi emanez erantzun dute. Musikariaren hitzetan, “haiek esandakoek gidatu dute, hein handi batean, Arrainentzako Himnoak-en lehen fasea”.



GARI GARAIALDE/ ARGAZKIPRESS

Moldatu eta hobetu

Kantu guztiak banan-banan hartu eta moldatzea izango da bigarren faseko ardura. “Lehen baino txukunago” grabatu ondoren, webgune-ira igoko ditu ostera ere, oraindik behin-behinekoak izango diren bertsioak. Hiruzpalau hilabeteko lana izango dela uste du Morauk.

Proiektuari izena ematen dion Arrainentzako Himnoak kantua berriro grabatu eta igo du jada. Abesti gehienek hitzak musikariak berak sortuak badira ere, bada Mikel Peruarenaren hitzekin jantzitako bat, *Pozaren Dotriña* izeneko. Horrez gain, The Smiths taldearen *There Is A Light That Never Goes Out* kantua “perbertsioa” egin du hernaniarrak.

Ibilbide luzea 24 ataletan

Abesti, bideo eta azalpenez gain, ibilbide profesionala 24 ataletan banatu eta biografia argitaratu du sarean. *Crapulam Dormirae* taldean hasi eta gaur arteko abenturak narratzen ditu bertan, DJ lanetan emandako gauak, edota SGAEk dirua ordaindu zionekoak, besteak beste.

Ibilbide oparoa du musikari hernaniarrak, baina ez zaizkio oraindik indarrak agortu. Proiektuaren bigarren fasea hasi berri du, eta beste batzuk etorriko dira atzetik. Ezin jakin noiz amaituko den, baina bukatu artean, jarraituko du ziur webgunea berri berrienez hornitzen. ■





Helduen literatura | ITZULPENA

Venusen delta
Anaïs Nin

Itzultzailea: Garazi Arrula.
Txalaparta, 2013

Venusen istorioak

ANAÏS NIN ezaguna da bere bizitza biltzen duten *Journals* (1931-1971) izeneko idazlanengatik. Gaurkoan ez ditugu mintzagai izango, baina noizbait ere irakurtzea gomendatzen dizuet. Nin idazlea zen, bai, baina edozeren gainetik emakumetzat zuen bere burua, eta bi kontzeptu horien batasunean oinarrituz jorratu zuen bere ibilbide literarioa.

Eskuartean duzun *Venusen Delta*, aberats anonimo baten enkarguz atalka idatzitako narrazio erotikoen bilduma da, 70eko hamarkada arte liburu gisa agertuko ez zena. Diru premia zela eta, Henry Millerrekin elkarlanean ekin zion aberats horren beharrak asetzeari. Agurearen baldintza argia zen: “sexu esplizitua” deskribatzen zituzten narrazioak idaztea, orrialde bakoitza dolar baten truke. Hasieran lortu bazuten ere, Nin ezin izan zen luzez pornografia hutsa idaztera mugatu eta, ahots propio bat garatzen hasia zuela konturatuta, sexu-jardun mekanikoa deskribatzetik urrunago joan zen. Berak uste zuenez, Pandoraren kuxkak sentsualitate feminoaren misterioa gordetzen du, paralelismo ezin hobea, hain zuzen ere, *Venusen Delta* deskribatzeko. Izenburuan ageri den hitz jokoak, sexuaz mintzatzeko joera misteriotsu eta sentsual horri erreferentzia egiten dio eta, bide batez, bada emakumearen sexu-organoa aipatzeko modu ederragorik?

Venusen Delta sexu harremanei buruz idazten duen literatura dela esan daiteke. Hamabost narrazioetan barrena, sexu harreman infinituei buruzko istorioak aurkitzen ditugu: homosexualak, nekrofilikoak, lesbikoak, intzestu bidezkoak, eta guztiak inongo aurreiritzi eta taburik erakusten ez duen hirugarren pertsona neutro batean kontatuak dira, nahiz eta, kasu gehienetan, emakumearen ikuspegitik jorratuak izan.

Plazera, hemen ulertzen den bezala, ez da gorputzen arteko kontaktuaz bereganatzen den zer soil bat. Istorio bakoitzak badu sexu gosearen pizgarri gisa aritzen den elementu afrodisiako propioa; malkoak, barreak, beldurrak, ametsak, fantasiak, aurpegi ezezagunak, promesak, jelsia, etab. Irudimenezko eta emoziozko lengoaiari lotutako osagaiak dira, hain zuzen ere, sexu-jardunaren eszena bakoitzari bere eduki magikoa, ehundura berezia, gaineratzen diotenak. Beste modutan ezin genezake literaturaz mintzatzen aritu, eta film porno soil bat ikustearekin nahikoa izango litzateke.

Ongietorria ematen dizut, irakurle, irudimenezko plazer ezustekoenera. ■

Saioa Ruiz Gonzalez



Pamiela argitaletxeak,
Kulturaren aldeko Euskal Fundazioaren babesarekin

JUAN ZELAIA

XIII. Saiakera saria

antolatzen du, euskaraz idatzitako edozein gairi buruzko saiakerak edota iritzi lanak zabaltzeko eta sustatzeko asmoz.

Saria: 9.000 € · Bidaltzeko epea: irailaren 30a arte

Lanak bidaltzeko: Pamiela etxea (Juan Zelaia Saria),
Agustindarren industrialdea-Soltxate. G kalea - 31013 Iruñea
☎ 948 326 535 · soltxate@pamiela.com · Arauak: www.pamiela.com



2013



Sputnik 13
Atila y los Unos,
Barrua Truk, Broken
Faces, Wai Not
Bonberenea Ekintzak, 2013

Ekimen txalogarria

SPUTNIK bilduma, txalotzeko eta eskertzeko moduko egitasmoa da. Jadanik bildumaren bi CD kalean daude (aurrekoa 2011n argitaratu zen). Tolosako Sputnik plataforma eta Bonberenea Ekintzak zigilua dira bultzatzaileak. Bailerako taldeei grabazio estudio batean lehendabiziko aldiz aritzeko, beren kantu batzuk grabatzeko eta kantu horiek kaleratzeko parada eskaintzen diete. Halaber, aipatu taldeei jendaurrean aritzeko emanaldiak antolatzen dizkiete.

Bildumaren izena Tolosako eraikin altuenei egindako omenaldi bat da, hain zuzen ere, diskoaren azalean agertzen diren Sputnik famatuak.

Uztailaren 19an aurkeztu zuten *Sputnik 13*. Diskoan parte hartu duten Atila y Los Unos, Barrua Truk, Broken Faces eta Wai Not taldeak Bonberenea etxean aritu ziren, eta jendaurrean jo zituzten diskorako grabatu dituzten bi kantuak, beren gaineko kantuarekin batera. Hainbat estilo, melodia eta erritmo jorratzen dituzte aipatu lau taldeek.

Atila y los Unos talde mitikoa 80ko hamarkadatik ari da bere emanaldi-festa umoretsu eta zirikatzaileak egiten, han eta hemen, ironiaz beteriko rock kantuen bitartez. Horren ispilu dira bildumarako grabatu dituzten *Borda en San Blas* eta *Es lo que hay* kantuak.

Barrua Truk taldearen ibilbidea laburragoa da. Taldekideak musikari apartak dira, eta duela urte gutxi batzuk hasi ziren elkarrekin jotzen. Musika beltza da beren ardatz nagusia, eta *Salda Lodia* eta *Tormentinba* kantuetan Karibeko zenbait erritmo eta doinu landu dituzte.

Broken Faces taldeko partaideak gazteak dira. *Sputnik 13* diskoan entzuten ahal diren beren kantuak, *Rock'n Roll* eta *No turning back*, rock'n'roll-punk kantu azkarrak eta biziak dira.

Wai Not taldeko kideak ere gazteak dira. *Bera da* eta *Hazi berri bat* ska-punk rock kutsuko kantu indartsuak grabatu dituzte.

Grabazioa ona da, eta ekoizpen lan osoa ganoraz eginda dago. Mikel Zelaia arduratu da grabazioaz eta nahasketez, Bonbereneak daukan estudioan. Lau talde eta lau musika proposamen desberdin daude diskoan, eta talde bakoitzaren bi kantu besterik ez izanik, arin entzuten da CD osoa.




Goitik hasi eta beherantz, Atila y los Unos, Barrua Truk, Broken Faces eta Wai Not taldeak.

Oraingoz, *Sputnik 13* bilduman parte hartu duten Atila y Los Unos, Barrua Truk, Broken Faces eta Wai Not taldeen kantuez gozatuko dugu, *Sputnik 11* bildumako Switch, Indekitxen, Glaukoma eta Dolce Tangana taldeen kantuez duela bi urte egin genuen bezala, eta hurrengo *Sputnik* bildumaren zain egongo gara. ■

Joxi Ubeda



Gurutzegrama



LUC VIATOUR-CC BY SA

Sudokuak

Erraza

			7	1	4		5	3
		9		3	6			
5		7				4	1	6
6	9				3			
		5		6		1		
			9				6	2
9	1	3				8		7
			3	7		6		
7	6		4	8	9			

Zaila

4				3	6		8
			2	9			
			6		4		2
		1	7				
2	6						3
					5	4	
1	2		8		9		
				7	2		
8		4	1				5

Ezker-eskuin:

1. Saldukeria egiten duena. **Argazkian**. 2. Gauzak edo pertsonak garraiatzeko bide. Rhesus faktorea. 3. Inguru. Ukitzea, ukipena. 4. Deitu. Saldu aditzaren infinitiboa. 5. Herri hizkeran, zer. Galai, dotore. Zailtasun handiz. 6. Katu ar. Auhendatu. 7. Axola, kezka. Ezezkor. 8. Anitz, ugari. Makila borroketan aritzen dena.

Goitik behera:

1. Faltsua edo itxura hutsekoa ez dena. 2. Etenaldia. 3. Gipuzkoako herria. Tik-., erlojua. 4. Iridioaren sinbolo kimikoa. Txota. 5. Izukaitz. 6. Adore gutxiko. Samarioaren sinboloa. 7. Atomo kargatu. Deiadarra, auhena. 8. Ugaztun emeen ugatzetan eratzten den likido zuria (pl). 9. Komunikabide mota. 10. Eskumen, botere. Oihal fin eta garden. 11. Emakume bati hika. 12. Moduak. 13. Gorotza. 14. Etorri aditzaren infinitiboa. 15. Zeuri.

Kike Amonarrizen umorea Motibazioa



Maisutza ikasketak amaitu berri dituen gaztea ikastetxez ikastetxe dabil curriculuma banatzen. Halako batean, lortu du elkarrizketa bat. Zuzendariaren bulegora sartu da, eta hura galdezka hasi zaio:



— Eta esango al zenidake zeintzuk diren irakasle izatera bultzatu zaituzten hiru arrazoi nagusiak?

— Bai: uztaila, abuztua eta abendua.

Soluzioak

7	6	2	2	4	8	9	5	3
4	5	8	3	7	1	6	2	9
6	1	3	6	5	2	8	4	7
8	7	1	1	4	5	3	6	2
3	2	5	8	6	7	1	9	4
6	9	4	1	2	3	7	8	5
5	3	7	2	9	6	8	4	1
2	8	6	7	1	4	9	5	3

Erraza

8	7	4	1	3	6	2	9	5
9	5	6	4	7	2	3	8	1
1	2	3	8	5	9	7	4	6
7	8	9	3	6	5	4	1	2
3	4	1	7	2	8	5	6	9
5	1	7	6	8	4	9	2	3
6	3	8	2	9	7	1	5	4
4	9	2	5	1	3	6	7	8

Zaila

Ezker-eskuin: 1. Etoi, Kiwa. 2. Garraio, Rh. 3. In. 4. Aorisi, Sal. 5. Zg. Xalant, Nekez. 6. Katar. 7. Anista, Uihakor. 8. Asko, Makikant. 9. Egitza. 10. Oho. 11. Noka. 12. Enk. 13. Kaka. 14. Etoi. 15. Zunt.

Bertsoa paraje eta eskenategi bariatuenetara iritsiko da irailean

IRAILEAN JARRAITZEN DU bertso tourrak. Jaigiroa eta eguraldia lagun, saio bereziak aurkituko dituzu, urtean zehar bertsoa sartzen ez den eliza eta leizeetan, adibidez.

Urteroko zita, publikoan bertsolari handiak eta oholtzan izan daitezkeenak biltzen dituen, Lizardi Saria izaten da, Zarautzen. Kanporaketak abuztuaren 29an eta 30ean egingo dira Ur-Pekoak elkartean, afalostean. Finala beti frontoian jokatu da, baina aurtengo Modelo aretoan egingo da (Zigordia kalean), 22:00etan. Bat-bateko finalean bertan banatzen da bertso jarrien Basarri saria. Aurtengo bertsolaria jaio zeneko mendeurrena ospatzen ari dira, eta bertso sortak jartzeko gaia Basarri bera izan da.



Irailaren 14an Baldorbako elizan, erretaulari begira ariko dira bertsoan Jexux Mari Irazu, Iñigo Ibarra, Julio Soto eta Amets Arzallus. Akustika berezia frogan jartzen saiatuko dira.

Irailak 7. Donostian, Euskal Jaietan 500 lagun biltzen ditu bertsoak Konstituzio Plazan. 22:30etan hasita ariko dira Sustrai Colina, Uxue Albedi, Julio Soto, Aitor Mendiluze, Beñat Gaztelumendi eta Unai Iturriaga.

Irailak 8. Elorrión jaialdia egingo dute 18:30etan plaza bete jenderen aurrean. Fredi Paya, Jon Maia eta Jone Uri ariko dira.

Irailak 9. Zizurkil beheko jaietan, 22:00etan hasita eta Amaia Agirreren gaiak berme dituela, Unai Iturriaga, Maialen Lujanbio, Amets Arzallus eta Xabier Silveira ariko dira.

Irailak 11. Bermeon, Artza frontoian 22:00etan hasita, luzetabalean ariko dira Andoni Egaña, Uxue Alberdi, Arkaitz Estiballes eta Iratxe Ibarra. Txapelketetan bertsolariak bezain ezagun egin den Bernardo Mandaluniz ariko da gai-jartzen.

Irailak 14. Larresoron bertso bazkaria. Otelore elkarrekin antolatuko

rik, Amets Arzallus, Maialen Lujanbio eta Andoni Egaña ariko dira.

Irailak 15. Zigoitia Euskaraz festaren barruan, Mairuelegorretako kobazuloan, 11:30etan, Miren Amuriza eta Uxue Alberdi lamiak aurkituko dituzu.

Donostiako Aiete auzoan barrena erronda egingo dute Andoni Egaña eta Maialen Lujanbio, 10:00etan Munto baserritik abiatuta.

Antzeko formatoa baina poteoan, Legutian, Ander Sorozabalek eta Izar Mendigurenek, 14:00etan herriko plazan hasita.

Galdakaon urteroko bertso saioa egingo da, 19:30etan Kurtzeko plazan. Arkaitz Estiballes gaiei erantzunez ariko dira Maialen Lujanbio, Julio Soto, Miren Amuriza eta Anjel Mari Peñagarikano. Festetan bertso bazkaria ere egingo da (irailaren 21ean) eta Arkaitz Estiballes eta Etxahun Lekue ariko dira.

Irailak 16. Lezon, urteroko jaialdia egingo dute 19:30etan plazan.

Sebastian Lizaso, Andoni Egaña, Alaia Martin eta Amets Arzallus ariko dira.

Irailak 21. Iturenen, Joaldunen egunean baserriz baserri ariko dira bertsolariak ardi-larruen artean, eta bazkalondoan ere beste saio bat egingo dute.

Irailak 27. Bertsoa eta dantza uztartzen dituen Errimak oinetan emanaldia eskainiko dute Bilbon iluntzean, Bilborock aretoan (ordua zehazteke).

Irailak 28. Iruran jaialdia egingo dute, 22:00etan San Migel plazan. Hemen ere Amaia Agirre ariko da gai-jartzen, eta bertsoan, berriz, Aitor Mendiluze, Onintza Enbeita, Andoni Egaña eta Miren Amuriza. ■

**Estitxu
Eizagirre
Kerejeta**



Mina zerk eragiten duen ez dakigunean

DEMAGUN BAT-BATEAN sabelaldean mina sentitu duela urliak eta ospitalera joan beharrean dagoela. Larrialdietako medikuek, eta seguru-erik aparatuko digestiboko sailekoek, era guztietako azterketak egingo dizkiote, mina eragiten duen gaitzaren bila, baina gogotik saiatu arren ez dira gauza diagnostiko zehatza egiteko. Ospitalean hainbat ordu –kasurik txarrean, pare bat egun– pasatu ondoren, gaixoa minaren kontrako medikazioa beste errezeptarik gabe itzuliko da etxera, min-aldi hura zerk eragin zion jakin gabe.

Beste kasu hau lagun bati benetan gertatua da. Aspalditik zebilen hankako minez, eta behatzen inguruan halako min-zitada batzuk sentitzen zituen, eguneroko bizimodua aldrebesten ziotenak. Ezin edozein zapa-mota jantzi, arazoak oina lurrean bermatzerakoan, eta analgesikoak nahi baino maiztasun handiagoarekin hartu beharra. Halako min-aldi

batean ospitalera joatea beste irtenbiderik ez zuen izan. Medikuek minaren jatorria non egon zitekeen jakiteko azterketa ugari egin zioten arren, ez zuten diagnostiko zehatzik osatu. Eta ospitalera sartu zenean zeukan zalantza eta duda-muda berdintsuekin irten zen ospitaletik handik pare bat egunera gure laguna.

Gerriko min inespezifikoa, zabalduena

Hirugarren adibidea, askoz ere arruntagoa, gerriko minarena da, lumbago, lumbalgia edo min lunbar izenez ere ezagutzen dena. Kasurik gehienetan arrazoi jakina egon ohi da gerriko minerako. Lumbagiaren arrazoiak askotarikoak dira, baina medikuak normalean gai izaten dira arrazoi hori identifikatzeko. Herrialde industrializatueta, ordea, gerriko min inespezifikoa, alegia, proba guztiak egin arren diagnostiko argirik gabe geratzen den mina, lehen mailako osasun-arazotzat jotzen da, biztanleen %80aren bizi-tzan, uneren batean edo bestean agertuko baita. 1993an, adibidez, AEBetan lan-absentismoa eragin zuten lesio profesionalen %27ren erantzulea gerriko min inespezifikoa izan zen. Azken hamarkadetan laneko aldi baterako ezgaitasunen kopuruak ikaragarri egin du gora, eta gerriko min inespezifikoarekin lotutako erreklamazio kopuruaren gorakada biztanleriarena baino hamalau aldiz handiagoa izan da.

Urtebete eta gero, minez oraindik

Ikerketek frogatu dute minak hortxe jarraitzen duela agertu zenetik urtebete pasatu ondoren, gaixoen %62an. Kasurik gehienetan, eta medikuak agindutako tratamenduen ondorioz, ezintasunak eta minak nabarmen egingo dute behera aurreneko hilabeteen, baina oinazearen arrazoiak zehaztu eta behin betiko tratamendu egokia jartzen ez bada, hainbat kasutan hiru hilabeteren ostean berriro ere mina agertuko da.

Bizkarrezurra nerbioz, giltzaduraz, muskuluz, tendoiz eta lokailuz osatutako loturen multzo konplexua da, eta sarritan medikuak ez du asmatzen osagai horietako zeini bota behar zaion gerriko minaren errua. Medikuntzak asko aurreratu du, baina medikuok ez gara oraindik gerriko, sabeleko edo behatzetako mina bezain arruntak diren egoera guztiak argitzeko gai, gezurra badirudi ere.

Gaitz erdi, duda-mudan geratuko bagina. Kontua haraxeago joango baita kasu askotan. Zenbait pertsona tratamendu gero eta arraroago eta gero eta esoterikoagoak probatzen hasiko da, era guztietako osteopata, kiropraktiko eta akupunturisten kontsultatik kontsultara etengabeko erromesaldian. Kasu askotan tratamendu edo prozedura desegokiek mesede baino kalte gehiago egin diezaieketela konturatu ere egin gabe. Kontuz, bada, medikuntza tradizionalak bere ohiko prozedura eta tratamenduekin konpondu ezin dituen egoerak konpontzeko, han eta hemen, modu erraz bezain merkean eskaintzen diren irtenbide mirakulutsuekin! ■



Babeslea: iametza Interaktiboa

web garapenak

multimedia

aholkularitza

edukiak

ideia batetik errealitatera

iametza^{interaktiboa}

www.iametza.com

T.943 37 67 16

Aldaxka giroa

GAZTAINONDOAREN lore arrak eta gizonaren haziak, biek, espermidina deituriko poliamida bat dutela esanez agurtu genuen uda hasiera sapa hura. Gai honek zelulen garapenean zeresan handia duela nioen.

Landareetara lotuta, badira hazkundea eta garapena erabat baldintzatzen duten gai gehiago ere. Ezagunenak hormonak.

Hazi bat ernatuta, txerto bat eginda edo aldaxka bat itsatsita, landare bat mundura sortzen denean zailtan neko-soena izango den bide bati ekiten dio: hazteari. Bide horretan guk lagundu diezaiokegu; ongariak eskuera jarritz, adibidez, edo hormona berak emanez ere.

Landarearen hazkundean erantzukizun handiena duten hormonak asunak dira. Euskal Wikipediak dioen eran, auxina izena grekotik dator: $\alpha\upsilon\chi\alpha\nu\omega$, auxano, hazkundea esan nahi du.

Urte sasoi hau aldaxkak erabiliz landare berriak sortzeko azken aukera da. Behin udazkenean sartuz gero alferrik saiatuko gara. Landare bati moztu eta kendutako adar pusketa bat da aldaxka, eta sustraiak sortu eta itsasteko aldatu egiten da. Lan hori ahal den azkarren egiteko baldintza egokienean burutzea komeni da. Adar

indartsua, aldatzeko lur gozoa eta toki egokia aukeratu. Tarte batean sustrairik gabe iraun beharko duenez babesa hobe, eguzki galdatan behintzat ez jarri. Itsasteak bi lan ditu: adarra moztetakoan egindako zauria itxi eta sustraiak sortu. Bi lanok bizi-bizi burutzeko hormonak behar. Zelula berrien sorrera hormonak akuilatuko du. Hormona geuk eman diezaiokegu. Kimikoak badira, baina baita naturalak ere. Dilistak, *Lens culinaris*, adibidez, erruz du.

Erraza da dilisten hormona hori baliatzea: hartu eskukada bat ale, gau batez litro bete uretan beratzen eduki, atera eta ura jaso,

urasetutako aleak goata edo paper hezetan jarri, sustraiak agurtu eta 2-3 zentimetro luzatzen direnean moztu, dilistak zaperorako edo organikora bota, sustraiak motrailuan birrindu eta beratzeko ur hartan sartuta beste gau batez eduki. Horra auxinak lepo betetako ura. Ur hori urardotu eta aldaxka aldatu dugun ontzia edo lursaila ureztatu behar da. Eskertza laster igarriko diozu. Negurako sendo itsatsiko da.

Aldaxka, txertoarekin batera, landare baten klonak, hau da berdin-berdinak diren landareak sortzeko erabiltzen da. ■



JUSTINC-CC BY SA

Dilistek, *Lens culinaris*, erruz dauzkate hazkundea azkartzen duten hormonak.



Bakailoa

Bartolo
taberna - jatetxea

Euskal sukaldaritzan eta pintxotan
aukera zabala

Fermin Calbetón, 38
Donostia - San Sebastián

© 943 420 279
www.casabartoloetxea.com

Choctaw herriaren elkartasun ikasbidea



Choctaw tribuko hainbat kide 1908an, jantzi tradizionalak soinean. 60 bat urte lehenago, mirestekoa izan zen choctawek irlandarrekin izan zuten elkartasun keinua.

EGUNGO MISSISSIPPI (AEB), 1830. AEBetako Kongresuak Dancing Rabbit Creekeko Ituna onartu zuen. Itunaren arabera, Choctaw herriak hamaika milioi akreko lurraldea (45.000 km²) utziko zuen eta gobernua lur sail zabalagoa (hamabost milioi akre edo 61.000 km²) baina elkorragoa emango zien trukean egungo Oklahoman. Choctaw tribuko buruzagiek zuhur jokatu arren, kolonizatzaileen indarrari ezin izan zioten eutsi, eta azkenean amore eman behar izan zuten. Indioen erreserbatara behartuta bidali zuten lehen herria izan zen, nahiz eta beste askotan bezala neurria akordio adiskidetsuz moztarotatu.

Choctaw herria bitan zatitu zen. Gutxi batzuek, 1.300 inguruk, uko egin zioten arbasoen lurraldea uzteari. Baina beren arauak eta tradizioak utzi behar izan zituzten, eta AEBetako legee makurtu. Mississippin geratu ziren choctawak jatorri europarra ez zuten lehenak izan ziren AEBetako herriartasuna lortzen; eta beren jatorrizko identitatea galtzen.

Gehienek, 15.000 lagunek baino gehiagok, beste aukeraren alde egin zuten. Dancing Rabbit Creeken hitzemandako nolabaiteko autonomiaren bila abiatu ziren, beren arauak eta tradizioak eutsi nahian. Arbasoen lurraldetik Oklahomako erreserbaraino 800 kilometro egin behar izan

zituzten eta bidean goseak 3.000 bat choctaw hil zituen, tribuaren %20 inguru. Gerora, *Trail of Tears* (Malkoen Bidea) esango zioten choctawen odiseari.

1845ean, Oklahomako erreserbatik 5.000 kilometrorra, Gosete Handiak hartu zuen Irlanda. Politika ekonomiko antzuak, laborantza metodo desegokiek eta, batez ere, patata uzta ezereztu zuten gaixotasunek irlandarren heriotza-tasa izugarri igoarazi zuten; goseteak milioi bat irlandar baino gehiago hil zituen, eta beste bi milioik uhartetik alde egin zuten. Heriotzak eta migrazioak medio, Irlandak biztanleriaren laurdena inguru galdu zuen hamarkada bakarrean. Irlandar Diasporari esker, besteak beste, gosetearen berri berehala zabaldu zen mundu osoan, baita choctawen eremu berrian ere.

1847an, Malkoen Bidea gorpuz josi eta hamasei urtera, choctawek doi-doi lortzen zuten oinarritzko beharrak estaltzea. Baina ederki eza gutzen zituzten gosearen triskantzak eta irlandarrei ahal bezala laguntzea erabaki zuten, gosetearen berria Europatik etorri arren, Choctaw herria pixkanaka desagertzera kondenatu zuten kolonoak bezala. Irlandarrei laguntzeko 175 dolar biltzea lortu zuten. Gaur egungo 50.000 euro inguru. ■



Arrastoak Koka eta alkohola aurkitu dituzte haur inken momiatan

LLULLAILLACO (Argentina) sumendiaren gailurretik gertu, 6.000 metrotik gora, aurkitutako haur inken hiru momia aztertu berri dituzte Bradfordeko (Ingalaterra) unibertsitateko hainbat ikerlarik. 500 urte inguruko momietan koka eta alkohol arrastoak topatu dituzte. Adituen arabera, haurrak ziu-rrenik *capacocha* izeneko zere-monian sakrifikatu zituzten, baina koka eta alkohol kontsumoak ez du zerikusi zuzenik adingabeen heriotzarekin.

Izan ere, momien ileak aztertuz, kontsumoa gutxienez hil baino urtebete lehenago hasi zela jakin ahal izan dute. Adituek diotenez, koka hostoak garaierari aurre egiteko hartzen zituzten eta alkohola, aldiz, hotza hobeto jasateko eta espirituen mundura hurbiltzeko. ■



JOSE FONTANELLI


Lullailacoko hiru momietan "zaharrena" 13 urte inguruko neskato batena da. Izotzezko dontzela deitu diote ikerlariek eta, beste biak bezala, egoera ezin hobean dago aztarnategiaren temperatura baxuei esker.

www.argia.com/multimedia



Bideoak

Elkarrizketak, erreportajeak eta albisteak formatu arin eta azkarrean astero.



Diaporamak

Soinu naturalez, azalpenez ala musikaz girotutako argazki muntaia berritzaileak.




Argazki galeriak

Kanpoko zein bertako argazki bilduma ikusgarriak begiaren gozamenerako.




Ekitaldiak

Hitzaldi eta ekitaldi interesgarriak klik batean eta euskaraz, baita nazioartean emandakoak ere.



Film laburrak

Erabiltzaileek sarean zintzilikatutako euskarazko film laburren hautaketa.



Dokumentalak

Dokumental berri bat astero. Euskaraz edo euskarazko azpitituluekin.



Solasaldiak

Gai zehatzei buruzko eztabaidak, hitzaldiak eta mahai-inguruak, gogoetarako material gisa, euskaraz.



Bideo herrikoiak

Euskal Herrian jendearen ekimenez egindako bideoen biltokia.

Presoen askapena eta iheslarien itzulera ez dira bakarka ariz lortuko

Telesforo Monzonen ondoren Jean Fagoaga dugu Anai-Arteako lehen kidea, Saran sortua 1928an. Medikua. Battitta Larzabal, Hazparnen 1931n sortua –Aljerian eta Parisen bizi ondoren– 1971n sartu zen elkartean. Frantses hezkuntza nazionalean irakasle izana da. Mixel Mendiburu 1944an Senperen sortua, nekazal teknikari eta irakasle aritu da. Anai-Arteako historiaren lekuko apartak dira hirurak.

| MIKEL ASURMENDI |

Argazkiak: Dani Blanco



Battitta Larzabal, Jean Fagoaga eta Mixel Mendiburu solaskideak hurrenez hurren. Anai-Arteako kideak hirurak.

SENPEREKO Amotze auzoko Larralde kultur etxean bildu gara Anai-Arteko lagunekin: Jean Fagoaga, Battitta Larzabal eta Mixel Mendibururekin. Mendiburu senpertarraren bitartez heldu gara. Elkarrizketan jasotako honen azken eleak –hiruron

espiritua biltzen dutenak– ekarri ditugu aitzina: “Presoen aldeko giza-kate bat egin da berriki Durangotik Iruñera. Alabaina, giza-katea ez du ez alderdik ez talde batek egiten soilik. Jendeok maizago bildu behar dugu, abertzaleok hasteko. Gaiak sailkatu

behar ditugu, politikaren goi-mailan hala nola herrietan, presoen gaia eguneroko landuz. Goi-mailan lan egin behar da, baina hori behetik eta elkarrekin ekinez hasten da. Euskal presoen askapena eta iheslarien itzulera ez ditugu bakarka ariz lortuko”.

“Bistan da, presoak diren horiek behar ditugu atera burua goiti. Bakarka edo taldeka, nahi edo ahal den bezala, baina ohore guztiekin”

Mixel Mendiburu

Anai-Artea dugu hizpide. Nondik nora bere sorrera?

Jean Fagoaga: Sorrera naturalki etorri da, iheslariak tropaka heldu baitziren bestaldetik: zerbait egin behar zen, paperak behar zituzten. Hori zuten lehenbiziko problema. *Récépissé* delakoa eman behar zieten legalki plantatzeko. Donibane Lohizuneko komisaldegira laguntzen genituen. Geroago *Statut de réfugié politique* delakoa galdatzeko nahia izan zen, beste pauso bat. Beraz, organizatu behar zen gazte horien errezibitzeko. Anai-Artea elkarte muntatu genuen horretarako, Telesfororen ideia izan zen, Piarres Larzabal haren ondoan izaki.

Mixel Mendiburu: Jean Barnetxe, Larregain, Etxezaharreta... Geroago Christiane Fando abokatu, eta honen ahizpa ere aritu ziren, besteak beste. Anai-Arteko kideak iheslarien osasunaz arduratzen ziren, haurren sortzea lagunduz adibidez. Hegoaldetik etortzen ziren iheslari guztiak Donibane Lohizuneko Marion Garai karrikan zegoen lokaletik pasatzen ziren. Haien ordezkari batek bestaldetik zetozen laguntza materialak banatzen zituen. Anai-Artea 1968an ofizialdu zen, baina *Société de fait* bezala funtzionatzen zuen lehenagotik, ofizialtasunik gabe, lehen iheslariak 1959 aldean iritsi baitziren.

Battista Larzabal: Nik lehen erre-fuxiatuak –Madariaga, Txillardegia eta gaineratikoak– 1962an ezagutu nituen, Aljeriatik etorri ondoren, baina segidan Parisera joan nintzen. Errefuxiatuak ezagutu nituen han ere, Euskal Etxean. Ez ziren biziki onartuak. *Enbata* agerkaria ere ez



zen ongi ikusia. Euskal Etxeko zuzendaritzan aldaketak izan ziren eta hartara onartuak nolazpait. Errefuxiatuek arduratzen ginen Parisen eta hemen. 1971n itzuli nintzen Euskal Herrira, Enbata hasi nintzen militante xume bezala. 1974an HAS eta EHAS sortu genituen, Santi Brouard burukidea zen. Ondoren sartu nintzen Anai-Artean. *Enbata* agerkariak 150 erre-fuxiatuen izenak eman zituen ezagutzera, etxea behar zuten aterpetzeko eta laguntza eskatu genuen. Frantziako Gobernuari lehen desafio handia bota genion. Hura izan zen *Enbata*ren azken zerbakiak bultza batez, Gobernuak Enbata debekatu baitzuen.

Zer harremana zenuten iheslariekin?

J. Fagoaga: Mutil horiek heldu zirelarik beren bizimodua segitzen zuten hemen, ez zuten Iparraldeko jendearekin harremanik kasik. Gerra zibilaren ondokoan seme-alabak ziren, militar gisara kontsideratuak. Ostuetan ibiltzen ziren, ez zuten Iparraldeko politikoekin harremanik ere, beren artean egoten ziren, arras bereziak ziren, beren borondatez. Politikariak –Jakes Abeberri horien artean– kritikatu zituzten: “Nola ez ote dira hemengo bizitzan eta politikan sartzen?”, erraten zuten. Hemengo jendartearen bazeuden haien alde ados zirenak errotik eta errotik kontra zirenak ere. Egia erran, etsipen gisako bat bizi genuen gure aldean.

B. Larzabal: Hala ere, nik 1971an Madariaga eta horiek Enbata ikusi ditut. Aitortu behar da Ikastolak eraikitzen lagundu dutela, horietako batzuen haurrak hemen ikasi eta errotu dira. Oraingo irakasleen artean badago horietatik. Gizonak baino gehiago –egia zor– emazteak aritzen ziren. Belaunaldiak eta belaunaldiak izan dira, garaiak eta egoerak ere desberdinak.

J. Fagoaga: Segurki, bi garai nagusi izan dira, Francoren denborakoa eta hura hil ondorengoa. Egoera arras aldatu zen batetik bestera. Francoren denboran ETak bazuen halako prestigioa Iparraldean eta Frantzia guztian. ETak diktadura baten aurka borrokatzen zuen, hortakotz iheslariak laguntza zuten. Frantziak *Statut de réfugié politique* ematen zuen. Anai-Artean ongi prestatu behar genituen dossierrak. Zenbaitek ETakoak zirela zioten klarki. Batzuk onartuak ziren, Estatutua ematen zieten, eta beste batzuk aldiz kanporatuak.

Telesforo Monzoni buruz zer erran dezakezue? Bera izan zen geroago Xibertako elkarrizketako bultzagilea.

J. Fagoaga: Monzonek berezko klasea zeukan, naturala. Telesforo Francoren aurka borrokatzen zuten mutil haiek miresten hasi zen. Aldiz, bere alderdia (PNV) desagertua ikusten zuen, ez zuela fitsik egiten. “Non dago EAJ?” zioen. ETaren bitartez argi bat ikusi zuen Monzo-

nek. Mutil haiek Hegoaldea dikta-
duratik askatu zuten ziur zegoen,
baita Larzabal apeza ere. Biak kon-
bentzituak ziren, manera batez edo
bertzez, irabaziko zutela.

M. Mendiburu: Gu gazte ginen,
politika Monzonen eta Larzabalen
afera zen. Gu linboetan ginen nola-
bait, gauza asko ez baikenuen ulert-
zen. Iheslariak hunkituak ginen,
nola errezibitu behar genituen kez-
katuak. Jende horiek hemengo
gizartean plegatzea zen gure lana.
Gu gehiago bizi ginen horretan,
besteak goi-mailako politikan ari-
zen ziren. Berantago ohartu ginen
Xibertako elkarriketak izan zirela,
baina horiek ez ziren gure aferak.
Denbora pasa ondoren, porrotaren
arrangurak ezagutu genituen: “Den-
bora gehiago ukan bagenu! Lehen-
ago elkartu izan bagina, gehiago hur-
bilduko ginen beharbada”. Guretzat
errefuxiatuek eta hemengo herrita-
rrek elkar ulertzea zen inportantea,
hasteko, euskara ezberdinak ditugu-
lako, eta euskaraz ere ez beti ari. Bi
kulturen txokea izan zen.

B. Larzabal: Xibertako elkarriket-
tak gero ezagutu ziren, *Xibertako
aktak* liburuan daude. Laburrean
erranik: ETAk eta EAJk bakoitzak
bere erlijioa aplikatu zuen. EAJk ez
zuen bere jarrera aldatu, aurretik
eginak zituen akordioak, alderdi
sozialistarekin batez ere. Nafarroari
buruz, bertzeak bertze. ETAk
berriz, aitzinetik errana zuen gauza
batzuk ez zituela onartuko. Eman
dezagun, Espainiako Gobernuak
amnistia eman nahi zien frankistei,
aldiz, ETakoak Estatutik kanpora
bota zituzten. Espainiako Gober-
nuak bere jokamoldea ezarri zuen.
EAJk ez du egundo argitu trantsi-
zioko akordio haiek nolakoak ziren,
ezta noren artean eginak ere. Mon-
zonek erran zuenez “bi abertzaleta-
sunak ez badira elkarretaratzen, ez
dugu zereginik”. Frantziako eta
Espainiako politikan egun badira
ukitu ezin diren akordioak. Errate-
rako, Frantzian ezkerak eta esku-
inak aldiari aldi kohabitazioan
gobernatzan dute. Hemen zoritxa-
rrez ez. Gainera, kanpo politikari
buruz ados daude. Guk ez badugu
gauza bera egiten, EAJ ez bada



estatu baten espirituan sartzen,
nekez.

M. Mendiburu: Monzoni
buruz badut oroitzapen bat:
ETA talde terroristatzat ekarri-
ko ote zuten edo ez jakin behar
zen. Alemanian egin zen bilkura.
Monzon loriatua etorri zen han-
dik, eta Larzabalek “zer berri
duzu, bada?” galdetu ere. Mon-
zonek: “ETA ez dute talde
terroristatzat hartu European,
aldiz, IRA eta beste batzuk bai”.
Hori garaipen izugarria izan zen.
Handik urte batera ETA talde
terroristetan sartu zuten, Alema-
niak Espainiari *Siemens* trenak
saldu ondoren. Beste pasadizo bat
ere badut: Jeltzaleak aspertuak ziren
suprefeturara paperen bila joateaz.
ETakoekin topo egin eta hauek:
“To, zuek gerla irabazi izan bazenu-
ten ez ginen hemen izango!”.

Trantsizioa abiatu zen Espainian.

J. Fagoaga: Trantsizioa Espainian
hasten delarik Giscard d’Estaing da
presidentea Frantzian. Honek Espai-
nia demokrazian sartzea nahi zuen
absolutuki, ahal zen guztia egin zuen
horren alde. Espainiako Erregea
ezarri zutenean —d’Estaingek maite
du Erregea, d’Estaing baita, noblea
bera ere— berarekin nahi izan zuen
Espainia salbatu. Alabaina, ETAk
atentatuekin segitzen zuen eta Fran-
tzian ez zen batere ongi ikusia, bate-

**“1981ean, Bigarren Mundu
Gerran aritu zen
belaunaldiaren
ondorengoa heldu zen
gubernura. Horiek
frankismotik urrun ziren,
frantses erresistentziatik
ere urrun, beste belaunaldi
bat zen. Beraz, gauzak
erraztu ziren bi estatuen
arteko harremanetan”**

Battitta Larzabal

re ez. Dena aldatu zen momentu
hartan. ETA ere aldatzen hasi zen:
Poli-miliak, Miliak, Berezikiak... Anai-
Artean ere zailtasunak handitu ziren.

**GALen garai gogorra heldu zen gero-
ago.**

M. Mendiburu: Garai hartan
etxeak iheslariz beteak ziren; kanpai-
na handia egin zuen Anai-Arteak.
GAL gogorki ari zen, eta guhaurrek
ere kristoren beldurra pasatzen
genuen. Poliziak jendea harrapatzen
zuen sarekada handietan. Jendea
etxean genuen eta aldi berean
GALen kontra agertzea edo zerbait
antolatzea zaila zen. Anai-Artea ere
inguratuta zegoen, gure kideak arras-
tatuak. Beldurra izugarria zen. Jen-
dea lapinak bezala hilak izan ziren.

Anai-Artea: atzoko eta gaurkoaren segida

ANAI-ARTEA 1968 aldean sortu zen era legalean. Ordurako baina, abantzu hamarkada bat zeraman Hegoaldetik Iparraldera iristen ziren iheslariak laguntzen. Mendierdi luzea egin du lanean. Atzoko espiritua bizirik atxikitzen du gaur egun, bere lokala ere sortu zen leku berean dago: Donibane Lohizuneko Marion Garai karrikako 16an.

Telesforo Monzon izan zen sortzaile eta aitzindaria, Piarres Larzabal apaiza ondoan zuela. Iparraldeko jende anitzek arrasto sakona utzi dute Anai-Artearen lanetan, baita hegoaldiarrek ere. Juan Mari Arregi (*Udalaitz* kazetaria) dugu horietako bat, adibidez.

Aturritik Ebrora / Telesforo Monzon, hitzeko gizona, Las actas de Txiberta (Xibertako aktak/ Les actes de Chiberta), eta berriki *Frantziaren esku hartzea euskal gatazkan* liburuak aurki ditzakezu bere publikazioen artean. Eta are informazio gehiago: anai-artea.com-en.

Monzonek 1977an idatzi zuen “euskal indar guztien batasunerako lanean aritzeko gogoia daukat” leuari atxikia jarraitzen du Anai-Arteak. 1977ko espiritua –1936ko gudarien segida izan zena– 2013koa izaki.

J. Fagoaga: Felipe Gonzalez estatuburua zen. GAL antolatu zute-nean zera handia egin zuten. Hau da, ETAkoak Hegoaldean aritzen ziren eta Iparraldean *Santutegia* edo aterpea zuten. Ordura arte Frantziako agintariak ez ziren sobera mugitzen, baina GAL hasi zelarik hemen jendea tipi-tapa hiltzen, Frantzia behartua izan zen bere *citoyennes* babestera. Orduan tokiko herritarren jarrera aldatu zen guztiz. Kanporaketak eta deportazioak hasi ziren: ETArekiko jarrera aldatu zen errotik GALi “esker”, espainolentzat bistan da, bestenaz borrokak segituko zuen bere hartan.

M. Mendiburu: Garai berean, turismoaren aurkako IKren ekintza kanpaina izan zen: *Turismorik ez!* lemapean. Frantziak kanpaina psikologikoa zabaldu zuen: “Turismorik ez? Norena da atentatuaren errua? Errefuxiatuena”. Turismoak kalteak ekarri ditu, baina hemengo jende anitz hortik bizi zen edota bizi gara egun ere. Ordura arte errefuxiatuen alde zeuden hainbat jende haien gain bota zuten gertatzen zena. Hark aldatu zuen hemengo giro guztia. IK-k bere arrazoiak zituen turismoaren kontra egiteko, baina kanpaina gaizki egin zen. Edo bertze gisa batez egin behar zuten, azalpenak ongi emanez. Kanpaina ez zen ulergarria. Herriko Etxera deituak ginen IKren atentatuak

zirelarik Senpereko auzapez Ezpondak: “Behar duzue kondenatu” erraten zigun. Izugarria. Seaska ikastoletako gurasoei ekintza horiek kondenatzea eskatzen ziguten. “Guz ez gara alderdi politiko bat” genioen, ez dugu deus ikusterik, baina...

B. Larzabal: Gero, gogoratu behar da, aldaketa politikoak izan ziren Hegoaldean nahiz Iparraldean. Alderdi sozialista zegoen Frantziako eta Espainiako gobernuetan. 1981ean, Bigarren Mundu Gerran aritu zen belaunaldiaren ondorengo heldu zen boterera. Horiek frankismotik urrun ziren, frantses erresistentziatik ere urrun, beste belaunaldi bat zen. Gauzak erraztu ziren bi estatuen arteko harremanetan. Laurent Fabius zen Barne ministroa, Kanpo aferetarako

oraingo ministroa. Horrek eman zituen errefuxiatuen deportatzeko eta kanporatzeko aginduak, eta gaur egun agintzen segitzen du. Pentsa, GALEk jarraitzen zuen gogorki eta *Le Monde*k salatu zuen Gobernuaren jarrera: ez duzue deus egiten GALEn kontra. GALEkoak hemen turistak bezala mugitzen ziren.

Hamarraldi gaitza. Aljeriako elkarriketak mugarri izan ziren ondoren.

B. Larzabal: Frantzia beldur zen Hegoaldeko abertzaletasunaren indarra Iparraldera hedatzeaz. Eta behar da ikusi ere Europaren bilakabidea. Estatuak ez dira desagertzen, alderantziz, egun Europako estatuak beren akordioetan mugak ongi zainduak dituzte, Alemania buru delarik. Badira ere herri gutxiagotuen aldeko akordioak, baina horiek ez ziren hastapenean aski indarrez egin. Alabaina, Europako ekialdea desagertu zen, eta bertan badira gutxiengoak eta batzuk sartu dira European estatu gisa. Aukerak badaude, teoriarik.

Europa da euskaldunon aukera?
Bai [Hirurek baietz erran dute].

B. Larzabal: Mugak ari dira desagertzen, baina Frantzia da herri gutxituen aurka sutsuen ari dena. Gure kontra bezala, bretoien edota korsikarren kontra.

J. Fagoaga: Hala ere, azpimarratu behar da euskaldunok ez dugula batasunik erdietsi politikan. Ez dugu urrun begiratzeko ikusmolderik, osotasunean estatu baten gisa antolatzeke ahalik. Aldiz, Frantzia-

MARCO S
okindegia

**Benetako
aitzinako ogia**

© 943 450 966

Ubarburu pasealekua, 113
Astigarraga (Gipuzkoa)



“Francoren aurka borrokatzen zuten mutil haiek miresten hasi zen Monzon. Aldiz, bere alderdia (PNV) desagertua ikusten zuen, ez zuela fitsik egiten. ‘Non dago PNV?’ zioen. ETArek bitartez argi bat ikusi zuen Telesforok”

Jean Fagoaga



ko eta Espainiako estatuak ados dira beti gure kontra, beti elkartzen dira. Begira orain, Lurralde Elkar-goia emateko ere, egitura tipi-tipi bat. Funtsean Frantziak dio ezetz, beldur da, eta bat egiten du Espainiarekin. Gauzak izugarri zailak ikusten ditut. Europa birmoldatze garai honetan ez bada Euskal Herria osatzen, ez da sekula eginen.

Lizarra-Garaziko Akordioa eta Loiola-ko elkarrizketak iritsi ziren berandua-go. Aukerak aukera, ezker abertzalea EAJrekin batzuetan PSOErekin bestetan, baina porrotak jasoz betiere. Gaur egunera etorrita, ETak utzi du bere jarduera. Espero al zenuten? Izan den bezala espero ere?

M. Mendiburu: ETako kide Xabier Lopez Peñaren (*Thierry*) hitz gogorak ezagutu genituenean, “ametsetan bizi gara” pentsatu genuen. Jendeak dudarik gabe pentsatzen eta erreakzionatzen du. Gauzak aldatzeko astia behar da, itsasontziaren norabidea aldatzeko denbora. Etorri behar zena etorri da. Naski, duela hogeitau urte heldu izan bazen sinesgarritasun gehiago izanen zuen, beraz, sinesgarritasuna irabazi behar da.

B. Larzabal: PPK badaki ETak ez duela segituko. Beren bizkartzainak kendu dituzte hasteko. Hein batean sinesten dute, baina besterik da Madrilek auzi honekin bukatzeko daukan interesa. Aldaketa politikoa

eman behar baita, beste marko politikorako akordioa behar da. Ordea, Nafarroa bereizirik nahi du eta orain bezala segitu. Ahal badute atzera eginez gainera, hezkuntza politikan ikusi dugu hori, adibidez.

J. Fagoaga: Espainolek demostratu nahi dute “ETako abentura terrorista porrota handia izan dela”. Bere ontasunean autonomia eman dutela tokiko herrialdeetan, eta batere ez ETaren presioarengatik. Hori ez dute onartu nahi. Ez dute onartu nahi *Tejerazoa* izan zela. Ez dute estatu kolpe bat izan zela ere gogoratu nahi, ez dute soportatzen Euskal Herriak autonomia ere izan dezan. Espainolek nahi dute erran dezagun ETA alferrik aritu dela. 700 preso dira espetxeetan eta horren errua ETarena dela onartzea nahi dute.

Zer litzateke Euskal Herria azken mende erdian izan den bilakaerarik gabe?

B. Larzabal: Iparraldean hasteko gauzak asko aldatu dira. Nik duela 50 urte abertzaletasun hitza bera ez nuen ezagutzen, errate baterako.

Geroari begira, berriz, zer?

B. Larzabal: Francok “*todo atado y bien atado*” utzi zuen. Frantziako Konstituzioan ere dena mugatuta dago. Legeak betiko lege berak. Frantziaren eta Espainiaren jarrera aldatu gabe ezin daiteke Euskal

Herriaren egoera aldatu, ez Iparralde ez Hegoalde. Gehiengo izanik ere, zer egin dezakegu? Genevako Hitzarmena mintzagai, konparazio: ETako kideak terroristatzat ekarriak izan arren, tortura ez da zilegi. Frantziak eta Espainiak hori aintzat hartu eta aplikatu behar zuten hasteko eta behin, baina ez dute egin.

J. Fagoaga: Guk ETakoek beren herriarendako borrokatu dutela ozenki erraten dugu, beren biziak arriskatu dituztela. Horiek behar dira orain lagundu eta salbatu. Baina zaila izanen da.

M. Mendiburu: Bistan da, presoak diren horiek behar ditugu atera burua goiti. Bakarka edo taldeka, nahi edo ahal den bezala, baina ohore guztiekin.

B. Larzabal: Nik presoak ikustean, jujamenduak eta legeak ikusten ditut: ETakoen kasuak gaiztaginen gisara hartuak dira, gaiztagin elkarteko kideak bezala. Bi urte luze egin nuen Aljerian, eskola erakitze lanetan ezagutu nituen hango presoak, lagun eta lankide izan nituen. Memento hartan, 1962aren otsailaren 20ra arte, gaiztagintzat eta terroristatzat ekarriak ziren, baina hila-bete baten buruan heroiak izatera pasa ziren. ■



Lurraldeak

Zonaldeak

Gomendioak

Jarri zure
bannerra

Gehitu
herri bat

Proposatu
zerbait

Euskal Herrian ihesi

Osa dezagun guztion artean geure gida sarean

Non jan dezaket Bermeon? Zer ikusi beharko nuke Maulen?
Non egin dezaket lo Tuteran? Bastidarrek bertara joateko
egun berezirik gomendatzen al dute?

Hurbil diezaiogun elkarri Euskal Herria



Euskal Herriko lehen turismo webgune interaktiboa

Herrietako informazio praktikoa, mapak, bideoak, ARGIAko Ihesi
erreportajeak, erabiltzaileen gomendioak, zeure proposamenak egiteko
lekua, zure iragarkia 0,50 €-tik aurrera...

ihesi.com



argia
proiektua

Barnetegia urte osoan zabalik

Joxean Sagastizabalen *Kutsidazu bidea* Ixabel eleberriko Juan Martinen moduan, badira uda euskaraz ikasteko edo urtean zehar ikasitakoa hobetzeko baliatzen dutenak.

Gaur egun, ordea, ikasteko ohikoagoak dira barnetegiak baserriak baino, eta hauetako batzuen lana, Maizpiderena adibidez, ez da udan amaitzen.

| IURE EIZAGIRRE |

IURE EIZAGIRRE



Irratian eguneko albistegia entzun eta ikaskideei albisteak azaltzen. Ezkerretik eskuinera: Javi Ruiz, Gaizka Garcia, Ana Mejino, Eva Calvo, Mikel Lasa irakaslea eta Patxi Barrena.

IRAILEAN ERE martxan egongo dira udako ikastaroak Lazkaoko (Gipuzkoa) Maizpide barnetegian. Eta udan zein ikasturtean zehar bertaratzen direnen asmoa euskara ongi ikastea den arren, urria arte

ez du ohiko erritmoa berreskuratu euskaltegiak. Irailean ere, beraz, ikastaroak 12 egunekoak izango dira eta ohiko kurtsoetan baino pare bat ordu gehiago egingo dituzte egunero, klaseak taile-

rrekin eta irteerekin uztartuta.

Aurten 39. edizioa dute Maizpideko udako ikastaroek eta jendeak atseginez igarotzen ditu egunak Lazkaon. Idazkaritzan ikusi dugu horren adibidea: bi gizon hurbildu dira izena ematera. Paperak eman ondoren, arropa erosoa eramateko aholkatu die idazkariak eta haietako batek erantzun dio, baietz, badakiela, iaz ere egon zela barnetegian hilabetez. Aurten lagun batekin itzuli da.



AQUARIUM

Carlos Blasco de Imaz Plaza, 1 • 20003 Donostia (Gipuzkoa) • Tel: 943 44 00 99
aquariumss@aquariumss.com • www.aquariumss.com



Urte guztiko eskaintza

Euskara ez da hilabete gutxi batzue-tako kontua eta ongi dakite hori Maizpiden. Horregatik, Euskal Herrian urte guztian zabalik dagoen barnetegi apurretakoa da.

Aita Beneditarrek euskalduntze eta alfabetatze lanak lehenago hasi bazituzten ere, Lazkaon, 1982an ekin zioten urte guztiko ikastaroak emateari. Fraideen monasterioan lo egin, herriko lokal batean klaseak eman eta Lazkaoko beste mutur batean jaten zuten orduan. 1988an zabaldu zuten egungo eraikina, lehen zuzendari izango zen Dionisio Amundarain beneditarra bultzatzaile nagusi zela.

“Lazkaotarrek laguntza handia ematen digute, asko errazten digute eta batzuetan zuzendu egiten gaituzte, pazientzia handia dute”

Javi Ruiz, ikaslea

sio Amundarain beneditarra bultzatzaile nagusi zela.

Ordutik 25 urte igaro dira eta denbora horretan jende ugari pasa da, sorreran parean zuen Maizpi baserriatik izena hartu zuen barnetegitik. Horieta asko ekainean batu ziren garai zaharrak gogoratzera.

Batzuk denboraldi luzeak egin-dakoak dira Maizpiden, beste batzuk, aldiz, hilabete gutxi batzuk. Izan ere, Lazkaoko barnetegian ikastaroak hilabeteak dira eta ikasleak egokien datorkienean has daitezke, urrian zein martxoan, urtarilean nahiz ekainean. Gainera, bertan lo egin edo klaseetara bakarrik joan daitezke. Jon Urdangarin egungo Maizpideko zuzendariak azaldu duenez, azken urteetan jende gutxiago geratzen da lotan eta gehiago dira klaseetara baino ez doazenak: “Barnetegiak galdu egiten du, izan ere, barnetegi euskararen arnasgunea da, ikasleen arteko harremanak euskaraz direlako, eta klasez kanpo modu naturalean euskaraz ikasteko plus hori galdu egiten da”.

Giro euskalduna

Gune euskaldun horren bila doaz ikasleak Maizpidera. Gaizka Garcia gasteiztarra da eta zortzi hilabete egin zituen Lazkaon joan den ikasturtean: “Gasteizen, euskaltegian klasea amaitutakoan gaztelan hitz egiten duzu eta ez duzu ia aukerarik euskaraz mintzatzeko”. Javi Ruiz izan zuen ikaskide hiru hilabetez eta euskara erabiltzearen garrantzia azpimarratu du: “Euskaltegietan zaila da ahazkotasunaren aurerraztea eta aurerrapen hori barnetegian asko nabaritzen da”. Horretarako, ordea, ezinbestekoa da ikasleen ahalegina. Patxi Barrena Aiarako (Araba) herri batekoa da eta han ia inork ez omen du euskaraz egiten. Euskaltegian izena ematera joanda, egokitzan zitzaien talderik topatu ez eta Maizpiden eman zuen izena. Berak aitortzen duenez, barnetegiko kideek beti egiten dute euskaraz, “gaizki bada ere”.

Maizpidek hasieratik eman dio garrantzia ingurune euskalduna izateari: kafetegia barnetegi barruan jartzea izan zen hasierako eztabaidetako bat eta Dionisio Amundarainek hala bultzatuta, ez zen kafetegirik jarri, horrela ikasleak lazkaotarrek harremanetan egongo zirelako. Euskaraz, noski.

Telebista-gelako kateekin ere zalantzak izan ziren hasieran. Egun, euskarazkoak baino ez dituzte jartzen eta beste kateren bateko saioak, futbol partidak adibidez, soinurik gabe ikusi izan dituzte. “Nik gogoratzen dudala, Irailaren 11ko atentatuak bakarrik ikusi dira hemen gaztelaniaz”, dio Urdangarin zuzendariak. Zineman ere euskarazko filmak besterik ez dituzte ematen.

Euskara irakasteaz gain, euskal kulturaren murgiltzea ere badenez Maizpideren helburua, hilero bertso-afariak,

VITORIA
GASTEIZ
green capital

Gasteizen euskarazko hauek ez galdu

Euskaraz aurrera egin nahi? Elkarrekin urratsez urrats!

Elebiduna zara, aberatsa zara. Inguruan, ordea, euskara ez dakien norbait. Lagundu iezaguzu ikasteko zenbat aukera duen zabalitzen eta animatu ikastera.

EUSKARA IKASTAROAK GIZARTE ETXEETAN

> **Matrikula:** Irailaren 3tik 15era

> **Non:** Gizarte etxeetan

> **Info +:** www.vitoria-gasteiz.org/euskara

• GURASOENTZAKO IKASTAROAK

Gizarte etxeetako gertutasuna aprobetxatuz eta umeen eskola ordutegi berberetan, badago euskara ikasteko aukera.

• AITONA-AMONENTZAKO IKASTAROAK

Aitona-amonentzat ilobez gozatzea baino gauza handiagorik ez dago. Gizarte etxean oinarritzko maila lortu eta familiarekin praktikatu!

• AISA IKASTAROAK

Gasteiz gero eta anitzagoa da; ziur asko ezagutuko duzu atzeritik etorritako lagunena bat, esaiotzu ongi etorria eman nahi diogula eta euskaraz egin diezaiogun harrera!

• MERKATARITZA ETA OSTALARITZAKO

Langileentzako ikastaroa. Arlo horietan oso euskara gutxi edo ezer ez dakiten lagunak ezagun badituzu, eman ikastaro honen berri.

EUSKARA IKASTEKO DIRU-LAGUNTZAK

2013ko uztailetik 2014ko ekainera euskara ikasi eta honako talde baten kide izanez gero, udal diru-laguntzez baliatzeko aukera:

- Gurasoak
- Aisialdiko begiraleak
- Kirol begirale edo entrenatzaileak
- Aisialdi begirale edo kirol entrenatzaile izateko ikastaroetako ikasleak
- Merkataritza arloko langileak (Merkataritza eta Industria Ganberaren bidez)
- Herriarrik (diru-laguntza hauetarako ezarritako mugak gainditu ezean)

VITORIA-GASTEIZKO EUSKALTEGIAK

ETA EUSKARA IKASTEKO ZENTROAK

IKA

945 15 43 41 www.ikanet.net

AEK

945 25 24 00 www.aek.org

UDABERRIA

945 22 34 33 www.udaberria.org

HEGOALDE

945 28 41 96 hegoeusk@euskalnet.net

BAI&BY

945 15 71 10 gasteiz@baiby.com

MONDRAGON LINGUA

945 15 01 55 www.mondragonlingua.com

Maite duzun hura, euskaraz!



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala



MAIZPIDE

Goian, Jon Urdangarin zuzendaria (atzean) eta beste irakasle bat diasporako kideei on line ikastaroa eskaintzen. Behean, atsedean garaia ikasleek beraiek margotutako hormaren begiradapean.



MAIZPIDE

tertuliak, pintura, txalaparta, euskal musika eta dantza ikastaroak, eta Goierriko Goimen baserri eskolara irteerak egiten dituzte.

Presazko ikasleak

Orotarikoak dira Maizpidetik pasatzen diren ikasleak eta Urdangarinek “presazko ikasleak” izan ditu gogoan: “Batzuek kurtso osoa egiten dute hemen, normalean oposaketaren baterako behar dutelako datoz euskara ikastera”. Egunero euskaltegian baino ordu gehiago egiteak laguntzen die helburua lortzen.

Garcia eta Ruiz, adibidez, lanak bultzatu zituen euskara ikastera. Lehena langabezia geratu zen gero, eta euskara ikasteko baliatu du denbora. Ruizek, berriz, bigarren hiz-

kuntza eskakizuna behar du eta horregatik izango ez balitz akaso ez zatekeela euskara ikasten hasiko aitor du. Barrenak datorren urtean oposaketetan puntuak eskuratzeko lagungarri izango zaiola uste du, baina bestelako arrazoiak ere baditu euskara ikasteko: gurasoak euskaldun zaharrak ditu baina Francoren garaiko errepresioagatik eta probetxugarri izango ez zelakoan ez zioten euskara transmititu semeari. Barrena lanik gabe dago orain, eta hizkuntza berreskuratzea erabaki du.

Beste zenbaitetan lana bigarren mailako arrazoiak da. Ana Mejinok hainbat hilabete egin ditu Maizpiden ikasturte ezberdinetan eta euskaraz ondo hitz egitea du helburu, “eta agian lan bat lortzea”. Eva Calvok ere bigarren hizkuntza eskaki-

zuna behar du baina argi du hor ez dela amaituko bere ikasketa prozesua: “Bigarren eskakizuna edukita, gauza asko dakizkizu, baina ezin duzu erabili, ez dakizulako ondo erabiltzen. Jarraitu nahi dut gero kalean besteekin erabiltzeko”.

Arrazoiak arrazoi, denetarikoa ikasleak batzen ditu euskarak Maizpiden: hiru hilabetea ia ezer ez jakitetik ia dena ulertzera pasa den Lutxo fraide kaputxino italiarra, Bastidako irakaslea, Galiziatik irakasle postua erresebatuta dakarren baina klaseak emateko euskara ezinbesteko duen gaztea, urtean zehar internetez euskarazko klaseak jaso dituen diasporako kidea edo artzain ebanjelista argentinarra.

Lazkao bidelagun

Urteotan lazkaotarrak izan ditu bidelagun Maizpidek eta ikasleek ere nabari dute. Barnetegira heltzen diren lehen egunetatik euskaraz egiten dituzte herrian ohiko jarduerak. “Hemen lotsarik gabe egiten dugu euskaraz, nik hasieran oso hiztegi eskasa nuen eta beti euskaraz egiten nuen”, dio Barrenak. “Laguntza handia ematen digute, asko errazten digute eta batzuetan zuzendu egiten gaituzte, pazientzia handia dute”, gaineratu du Ruizek. Barnetegia aspalditik dago herrian eta tradizio hori izateak herria ohitzea eragin du, iritzi dio irakasleak eta “herria ondoan daukagu” dio.

Horren erakusle Maizpideren eskaintzetako bat: herriko familia euskaldunen etxeetan lo egitea. Ikasleek eguna barnetegian pasatzen dute baina afaldu, lo egin eta gosaltzera familiaren etxera joaten dira. “Hasieran ez zeuden familia asko eta duela bi ikasturte eskari handia izan eta familiak aurkitu ezin ibili ginen. Azken ikasturtean, berriz, familiak soberan izan ditugu”, adierazi du Urdangarinek. ■



Etxeak sakabanatzea harresi sozialak eraikitzea da

Lanpostua hiriaren beste puntan da, ez daukazu autorik, garraio publikoa ez da iristen edo denbora gehiegi kostatzen zaio. Beraz, ezin duzu han lanik egin. Zorte txarra? Ala hiria dago planifikatua hori gerta dadin? AEBetako ikerketa batek dio hirigintza barreiatuak uste baino eragin sozial handiagoa daukala.

| GORKA BEREZIARTUA MITXELENA |



MARK STROZIER

Honelako auzuneak maiz ikusi ditugu AEBetako filmetan. Pentsatzen al dugu hirigintza sakabanatuaren kalte sozialetan?

EGITURA konpaktua daukaten hiri-tan mugikortasun sozial handiagoa dago hiri sakabanatueta baino Equality of Opportunity Projectek AEBetan egindako ikerketa baten arabera. Bildutako datuek erakutsi dute San Frantzisko, New York eta Boston bezalako egitura trinkoko hirietan errazago gertatzen direla maila sozialen arteko mugimenduak. Aldiz Detroit, Memphis edo Atlantan, hiri sakabanatuagoak, zailagoa da baldintza sozioekonomiko hobeak lortzea inguru txiroetan jaio direnentzat.

Paul Krugman 2008ko Ekonomia Nobel sariak *The New York Times*en argitaratutako artikulu batean aipatu du ikerketa hori (*Stranded by sprawl*, euskaraz, *Hedape-nak bazterrean utziak*). Atlantari buruz ari dela, zera dio: “Hiria saka-

banatuegia egon liteke eta horrenbestez, okerreko auzuneetan bizi diren pertsonentzat lan-aukeretara iristea ezinezkoa da, literalki”.

Autoarentzat pentsatutako hiriak

Baina iritsi ezin horrek hiriaren luze zabalean mugitzeko zailtasunak dituztenei eragiten die, ez autoa eta gasolina ordain ditzaketenei.

Blanca Mugenyik eta Yves Englerrek *Stop signs: cars and capitalism on the road to economic, social and ecological decay* liburuan (*Stop seinaleak: autoak eta kapitalismoa gainbehera ekonomiko, sozial eta ekologikoan*) iradokitzen dute automobilak erabiltzeak ere asko eragiten duela mailaketa sozial hori gogortzen.

Lotura estua du lau gurpileko garraio pribatuak aipatutako hiri-eredu sakabanatuarekin.

Englerrek bere blogean azaldu du berriki zein den honen guztiaren ondorioa: “Autoak posible egin du pobreengandik urrun bizitzea (edo autorik ez daukan beste edonorengandik).


Gaur egungo segregazioaren muturreko adibideetako bat da, jendea ate itxietako komunitateen lubakian sartu da. AEBetan eta bereziki autoa jaun eta jabe den hego-mendebaldean, milioika familia dirudun gorde dira bizitoki eskusibo eta baztertzaila horietan. Berdintasunean oinarritutako gizartea nahi badugu, buelta eman behar diogu segregazio geografikoari. Komunitateak eta hiriak eraiki behar ditugu jendeak auto pribatuaren beharrik izan gabe iristeko moduan”. ■



EUSKAL OROIGARRIA

MAKILA

eskaintza berezia



- Opari berezietarako
- Pertsonalizatuak
- Prezio aukera desberdinak
- Iñaki Alberdik eginak



 **argia**

Eskaerak:

Zirkuitu Ibilbidea, 2 - Industrialdea, 15
20160 Lasarte-Oria (Gipuzkoa)
☎ 943 371 545 - denda@argia.com

www.argia.com/denda/makilak



Ingelesek elebkar izateko bidean segitzen dute

THE GUARDIAN egunkarian, David Bellosi irakurri diogu nola ingelesen gero eta joera apalagoa duten bigarren hizkuntza ikasteko.

Artikulugileak ingelesez baino hitz egiten ez zen txikitako Londres du gogoan. Gaur egun, autobusean ondokoek paxtuera edo hindia, zer hitz egiten duten asmatu nahian ibiltzen da; Londres hizkuntza anitz hitz egiten den hiriburu bihurtu da.

Ikasketa datuek kezkatzen dute ordea kazetaria. Gaztetxoek eskoletan gero eta gutxiago ikasten dute bigarren hizkuntza, 1990eko hamarkadaz geroztik ikasle kopururik baxuenak dituzte gaur egun. Unibertsitateak ez dabilta hobeto, goitik behera egin dute bigarren hizkuntzak ikasteko eskaintzek.

Kazetariaren iritziz, gero eta ingeles gehiagok uste dute ingelesez gain ez dutela bestelako hizkuntzarik behar. Erromatarrak ekarri ditu gogora Bellosek. Haiek ez omen ziren hain inozoak izan. Inperioko ia biztanleria osoa elebiduna zen. Ingelesek hizkuntza berriak ikasteko ezer ez egitea asmakizun berria da, aurreko zibilizazioek egin ez zutena.



Bellosek onartzen du hizkuntza bakarra exijitzen zuten jendarteak egon direla; XVII. mende erdialdetik XIX. mendera arteko Japonia adibidez, baina Bellosek dio oraingo ingeles gazteei ez litzaiekeela gustatuko Japonian garai hartan munduarekiko komunikazioa debekatzen zuen jarrera hura.

Easyjet-en garaian (oso merke bidaiatzeko aukera ematen duen hegazkin konpainia), ingelesen jokoerak asko harritzen du. Akordatu da

nola garai bateko Europako eliteak frantsesa ikasten zuen, eta era berean, nola frantsesek beste hizkuntza batzuk

hitz egiten zituzten: katalana, bretoiara, alsaziera... Gaur egun,

esaten da “mundu guztiak hitz egiten du ingelesez”, baina hiz-

tun horietako ia denek beste hizkuntza bat ere hitz egiten

dute. Badirudi oso talde txiki

batek mundutik isolatzeko joera daukala –dio egileak–, etxean bigarren

hizkuntzarik ez duten eskola ume ingelesak dira horiek. Eskoletan nekez bultzatu

dituzte bengaliera, urdua edo poloniera jolas-tokian ikastera.

EKONOMIAREN TALAIA • TERMOMETROA

Kapitalismoak ez du atsedetik hartzen

LANGILE KLASEAREN GEHIENGOAK eta herritarrek oro har, udako oporraldiez ahal izan duten neurrian gozatu duten bitartean, kapitalismoak atsedetik hartu gabe egin du lan. Etekinak pilatzen segitzeko erasoaldian neurri berriak diseinatzeko aritu da. Orain, oporretatik bueltan, langileek eta herri sektoreek ondorioak jasango dituzte. Hala, Nazioarteko Diru Funttsak (NDF), munduko kapitalismoaren zerbitzura dagoen erakunde nagusienetakoak, Espainiako Gobernuari eskatu dio soldatak %10 jaitsi ditzala. Era berean, murrizketa gehiago exijitu du laguntza sozialetan, BEZa igotzea ere bai, baita pentsioak gehiago jaitea ere. Eta, zinikoak, ez dute lotsarik esateko neurri horien helburua “ekonomia eta enplegua sustatzea” dela. Aitzitik, Cristine Lagardek gidatzen duen erakunde ultrakapitalistak egindako aurreikuspenek diote 2018 arte langabezia ez dela %26tik jaitsiko. Aldaketa horiek lortzeko sindikatu eta enpresarien arteko adostasuna behar dela dio NDFk.

Europar Batzordeak estrategia hori babestu du. Espainiako patronal handiak ere, CEOek –euskal patronalak barne–, horren alde egin du. Espainiako Gobernuak lan arloko legedian aldaketak iragarri ditu, soldatetan eta lanaldietan malgutasun gehiago lortzeko. Iruñeko eta Gasteizko gobernuek, praktikan, Madrilen diseinaturiko estrategia onartu izan dute. Madrildik murrizketa gehiago egiteko asmoa dute, eta Espainiako Ministroen Kontseiluak berriz oporretara joan aurreko bilkuran onartu zuen egunero 2,4 milioi euro gastatzea armak erosteko. Hegazkinak, helikopteroak, gudaontziak eta gerrarako gurdia erosi nahi zituen.

Orain, sindikatuen, langileen eta herri sektoreen ordua iritsi da. Ekintza bateratuen bidez, langileen eta herritarren kontraeraso antikapitalista diseinatu behar da, berezkoak ditugun eskubideak aintzat hartuz, gure soldatak, laguntza sozialak eta enplegua errespetatzea exijitzeko.

Juan Mari Arregi



Jacques Vergès abokatu mitikoa hil da Parisen

Aljeriako askapen gerra garaian FLNko ekintzaileak defendatzen hasia, bizitzan zehar arituz klase guztietako jendeen abokatutzan, izan ezkerreko iraultzaile armatuen edo Klaus Barbie naziaren, liburu andana baten idazle eta film ale batzuen protagonista, abuztuan hil da Jacques Vergès, azken ehun urteko legeizon handietakoa.

| PELLO ZUBIRIA KAMINO |

LLUIS LLACHEN 'VERGES 50' LPA gorde ote zuen? ARGIAk opari eskaini zion 1987ko apiril hartan, Parisko bulegoan elkarrizketatzera joanik Iñaki Uria eta kronika honen sinatzailea. Urte haietan zalaparta handia sortutako bi preso arras ezberdin defenditzen zituen: batetik Georges Ibrahim Abdallah libanoar ezkertiarra —oraindik frantsesek AEBen presioz Lannemezanen zigorturik daukatena— eta bestetik Klaus Barbie *Lyongo barakina* deitu nazi zaharra Boliviatik estraditaturik Frantzia epaitu behar zutena. Ondoren kontatuko denez, gu orduan ginen kazetari gazteok eza gutzen genuena baino askoz ibilbide harrigarriagoa zuen abuztu honen 15ean Parisen hil den Jacques Vergès.

Gaur Thailandia den lurrean sortu zen 1925ean, ama irakasle vietnamdarra, aita Paristik joandako ingeniari, mediku eta kontsula, Front Populaire ezker koalizioan karrera politikoa egingo zuena. Hautzaroa oraindik Frantziarena den Reunion uhartean egin zuen Jacquesek anaia Paulekin, gero familiarekin Parisera itzultzeko. Eta berehala engaiatu zen politikan.

Hitlerrek gerra pizturik, 17 urte-ekin sartu zen Erresistentzian, Ingalaterrara ihes egin ostean Italia-ko guduetan parte hartuz. Geroztik

beti miretsiko zuen De Gaulle. Gerra ostean alderdi komunistan afiliaturik berehala hartu zuen protagonismoa, Europa mailako harreman oso kualifikatuen sarea josiz. Bere burua beti *reuniondar* aurkeztuz, mugimendu anticolonialista modernoaren sorrera barnetik ezagutu zuen, Indotxinakoak —ordudanik omen zuen lagun Pol Pot kanbodiarrak, sorterriari Khmer Gorriekin halako kalamitatea ekarriko ziena—, Palestinakoa eta batez ere Aljeriakoa.

Aljeriaren independentziaren aldeko borrokalarietako epelegi zelakoan alde egin zuen PCFtik: 1960ko hamarkadan FLNko militanteen defentsan aurkituko dugu. Defenditzez gain emaztetzat hartu zuen Djamila Bouhired, Aljerreko kafetegi bat bonbaz lehertzeaz akusatutik atxilotu eta torturatua, heriotzara kondenatu zutena, Vergès-ek De Gaulleren indultua lortu ziona.

Diote Vergès izan zela bortizkeria politikoari lotutako epaiketetan hausturazko defentsa (*défense de rupture*) sortu edo gutxienez zabaldu zuena. Taktika horretan akusatuek ez du bilatzen bere zigorra arintzea epaitzen duen Estatua bera auzitan jartzea baizik. Gurean horrelako ale famatuena Burgosko auzia izango zen, handik urte gutxira.

Louis Monier argazkilariaren erretratuan, Jacques Vergès Parisko bere bulegoan. Ezker eskuko hatzen artean puru habano eder bat dauka; harro azaltzen zuen horiek pipatzen zituela gazte garaian Che Guevara mitikoak espres kaxa bat oparitu zionetik. Puru eta janzi karioekiko zaletasuna nola pagatzen zuen galdetuta erantzun zuen behin: "Oso erraza da. Gertatzen bazait printzeak defendatzea, printzeen neurriko ordain-saria eskatzen diet. Aldiz, baratzezainak defendatzen ditudanean, ez diet deus eskatzen". Telebistako eztabaidetan ikusi dutenek —azken urteetan ere tarteka deitzen zuten— badakite zinikoa izanik ere tarteka, errealitatearen analista fina zela eta beti ere Mendebaldeko sistemaren kritiko errukigabea. 2012an Lannemezango presondegiko atarian izan zen hark 1986an defendatutako George Ibrahim Abdallah oraindik preso daukatela salatzen.

Aljeria independentearen aginte berriari loturik hainbat abokatu eta kazetaritza lan egin zituen... 1970ean bat batean desagertu zen arte. Ez zen berriro argitara aterako 1978a bitartean. Nondik ibili zen?

Vergès berak ez du sekula argitu. Badira ziur daudenak diru arazoengatik urrundu behar izan zuela Frantziatik; epaile ohi batek idatzia du Mossad israeldarraren mehatxupean ezkutu behar izan zuela; askok uste dute Kanbodian ibili zela gazetako lagun Pol Poten aldamenean, Khmer Gorrien agintaldi odoltsuaren garaian.

Joko bat dela justizia

1980ko hamarkadan berriro Parisen kokaturik, inor ez zuen harritu Vergès ezkerreko militante armatuak defenditzen ikusteak, hala nola George Ibrahim Abdallah, Action Directekoak, Ulrike Meinhof eta Andreas Baaderren abokatu Klaus Croissant, beranduago Ilich Ramirez *Carlos*, eta abar... baina nazien okupazio garaian Lyon hiltzaile fama gaiztoa irabazia duen Klaus Barbieren defentsa bere gain hartzeak aztoramendua sortu zuen.

Vergès-ek argudiatzen zien horretaz galdetu zioten kazetariei Barbieren abokatu lanarekin erakutsi nahi izan zuela nola aginteak, Estatuek, justizia erabiltzen duen espektakulu



duen ikuspegi eszeptizismoz betea –zinikoa esan lezake norbaitek– azaltzen duena. Hura irakurrita batek ez daki *Justizia joko* da ala *Justizia jolasa* da eman beharko lukeen euskaraz. Sarreran esaldi hau ipini du: “Barrezka etsipenean”.

Vergèsen iritzian, auzi bat da “bilaketa luze bat lortzeko Egia bat auzitegiko familia handiaren kideek kontsentsuatu, magistratuak eserita eta zutik aurrean defentsako abokatuak, salaketaren abokatuak eta poliziak, denak Themis jainkoaren zerbitzari zintzoak. (...) Auzi bat da bi hipotesi sinesgarriren arteko borroka: trebeak irabaz dezala! Horregatik dauka beti Egia judizialak zapore mikatz samarra”.

Jakintza entziklopediko baten jabe, XX. mendeko politika eta politikari nagusi askoren ezagutzailer, polemikaren maitale, baita janzki eta puru onen ere, txit egolatra, makiaveliko, politikoki zuzena denaren salatzaile errukigabe... hori eta gehiago zen Jacques Vergès. Ai, eta primerako antzerkilaria.

Bizitzako beste hainbat arlotan bezala, edo gehiago, epaitzeko aretoetan zer esan den adina baitu garrantzia nork eta nola esan duen. Gauza bat da auzi bat lehertu nahi izatea eta beste bat hori lortzea. Honek bazekien.

2008an *Serial Plaidneur* bakarriketa –*serial killer* ideiarri keinu eginez– aurkeztu zuen Parisko antzoki batean. Abuztuaren 15ean gorpua agertu zen 1778an Voltaire hildako etxe eta gela berean. Hori ez bada azkenera arte antzokian nagusi jokatzea... ■



gisa. Barbie nazia urte luzez egona zen Hego Amerikan inork hari buruhausterik eman gabe, eta justu zahartuta heriotzaren atarian zegoeanean Frantziak erabili nahi ei zuen halako espektakulu demokratiko bat antolatzeko, batere ondorio praktikorik gabea, orduan presidentea zen François Mitterrandek demokrazia lezioak emateko probestu zezan... bera gaztetan hurbilago egona zenean kolaborazionistetatik erresistentziatik baino.

Bazter utzirik Vergèsen defendituen zerrenda anitza, frantsesezko Wikipediak laburbildu duena (Laurent Gbagbo bezalako Afrikako agintari ustelak, ustez etxeko nagusia hil zuen Omar Raddad lorezain aljeriar azkenean absolbatua, katoli-

ko hasirik musulman bukatu zuen Roger Garody pentsalari juduen holokaustoa ukatzen zuena, Slobodan Milošević presidente-ohi eslabiarra, Saddam Hussein ministro Tarek Aziz...) abokatu hil berriak utzi du gizon oso bizkor, konplexu eta polemikoaren itzala. Epaitzen zaila den gizonarena.

Vergèsen izakera eta bizitzaz bada fama handiko dokumental bat, *L'avocat de la terreur*, gaztelaniazko bertsioa ere baduena, Internetez eskuragai. Berataz idatzitako sei biografiez gain, 31 liburu daude Vergèsen berak sinatuak, azkena *De mon propre aveu* (Nihaurek aitortua), aurtun bertan plazaratua.

1992an *La Justice est un jeu* plazaratu zuen Vergèsen, justiziaz eduki



ZINKUNEGI
OPTIKA

Garantia.

Egunez egun zure konfiantza geureganatzen dugu,
produktu berriak eta zerbitzu berriak etengabe bilatuz.

Hernani, 23 · 20004 Donostia · T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com · www.zinkunegioptika.com



Xabier Letona



DANI BLANCO

Eta Derrytik

TELESFORO MONZONENA zen aipamena, Maltzagara arte elkarrekin eta gero hartuko du bakoitzak bere bidea. Eta ezin uka herrigintzan jardun nahi duenarentzat ezinbesteko esanahia duela buruzagi zahararren esaldiak, bereziki Euskal Herriak moduan bere burua kudeatu nahi duten herrientzat, eta zeresanik ez abiapuntu garrantzitsua hizkuntza gutxitua denean tartean.

Monzonengatik sinbologia berezia du Maltzagak euskal lurretan: askatasunaren bidegurutzea zen, abertzaletasunaren batasunaren beharra haren buruan; herrigintzarako batasun beharra izan liteke egun. Baina zein gizarte balioren inguruko batasuna? Krisiari aurre egiteko, zein batasun? Zein bake prozesuren zutoinak txukun jartzeko? Zein elkarbizitzarenak eraikitzeko? Jardun egin behar asmatzeko.

Ezin uka gehienetan antzeko galderen inguruan egituratzen dela herri bakoitzaren etorkizuna, eta ezin uka, halaber, gaur egun batasun zantzu horietan aurrera egitea duela 30 urte baino samurragoa beharko lukeela. Izan behar duela. Eta bada, baina gurean behintzat ezin jokaldia borobildu. Azken finean, bidegurutzez bidegurutze dabil bidean asmatu ezin duenak; besteak beste, horregatik egiten zen hain nekagarri ezker abertzaleko buruzagiaren ahotan Euskal Herria behin eta berriz bidegurutzean zegoela entzutea.

Baina orain bai, orain bake prozesuaren bidegurutzean dago euskal gizartea, ez atzera ez aurrera, Madril blokeo lanetan eskereskuin eta etxeko indarrak mahairik eratu ezinean, berdin bi hanka-



XABIER LETONA

koa, hirukoa edo laukoa. Eta ez litzateke hain larria tartean sufri-mendurik ez balego, ondo orbandu beharreko zauririk ez balego.

Baina badago, eta ez edonola-koa gainera. Carlos Urquijo gobernu ordezkariaren baldarke-riak Jone Artola bilakatu du sufri-mendu horren erakusleiho berriz ere: gura barik ere, ETaren bikti-mak eta presoak jarri ditu ardatz berean jira-biran, elkarbizitza berriaren norabidean bideratu beharreko bi gai garrantzitsuenak.

Azaleko irakurketan, arazoa ETaren armetan irudikatzen du EAJk Koldo Mediavillaren aho-tan, eta Sortuk erakunde armatua-rekiko ei duen menpekotasunean. Menpekotasunarenak usain zaha-rra du, sasoi bateko egiak betiko balira moduan, sinesgarritasun gutxikoa gaur egun. Armen garrantzia ezin uka, sinbolikoki bederen klabeetako erakunde armatu baten desegiteaz ari gare-nean. Eta udazkenean, neguan edo udaberrian, lehenbailehen gauzatzen bada entrega are eta hobeto, izan Eusko Jaurlaritzari, Espainiakoari edo nazioarteko batzorde bati. Armena ekintza sinbolikoa da batez ere eta, beraz, gutxi-gehiago asmatuko da horre-tan. Etorriko da gero ETaren

desegitea, bake prozesuan aurrera egiteko beharrez-koa bada. Ez, armak, ez ETA, ez dira inongo berme presoentzat, bake proze-suan aurrera egitea da haien berme bakarra, eta horretar-ako gaur gaurkoz badiruri armena eta desegitearena ezinbesteko urratsak izan-go direla. Gaur egun ETA-ren armarik funtsezkoenak.

Baina arazorik nagusienak ez daude ezker abertzalea-


ren esparruan, Madril en eta hemen bertan baizik. Joko politi-koak eska dezake Sortu eta ETA zirikatzea, baina itsuenak ere ikus dezake Madril dela bigarren ozto-po nagusiena, egungo egoeran eroso dagoena, legearen inperioan eta mendekuan ondo baino hobeto instalatua, eta gainera, euskal gatazka beste arazo askoren ihes-bide gisa erabiltzen duena. Eta bigarren diot, lehena bake proze-sua aktibatu eta bultzatu behar duten aktore politiko-instituzio-nalen ezintasunean dagoelako. Alde horretatik, pentsa liteke udazkenerako antolatu diren eki-men guztiak, ezagunak direnak eta ez, baliagarriak izango direla eus-kal gizartean bake prozesuaren bidean beste urrats garrantzitsu bat emateko. ETaren su-etenaren bigarren urteurrena ospatzeko modurik egokiena litzateke.

Orain arte legez, nik Maltzaga-tik jarraituko ditut kontuok eta, ez dakit nola moldatuko naizen, baina baita Derrytik ere, urtarrile-ra arte Irlandako iparraldeko hiri hau izango baitut bizileku. Hau irla bat da, baina erai-ki dituzte zubiak eta badakite zer bait bide-gurutze eta bake pro-zesuez. ■



ASTE HONETAKO

zozketa



Bilboko Kafe Antzokia




Bazkaria
bi lagunentzat

Done Bikendi, 2
Bilbo BIZKAIA

www.kafeantzokia.com

1

Iruñeko Planetarioa



3 harpidunentzat
bina sarrera

Antso Ramirez, z/g
Iruñea NAFARROA

www.planetario.org

2

Donostiako Aquariuma



4 harpidunentzat
bina sarrera

Carlos Blasco de Imaz plaza, 1
Donostia GIPUZKOA

www.aquariumss.com

3

Ekainberri

Ekain berri




3 harpidunentzat
bina sarrera

Portale, 9
Zestoa GIPUZKOA

www.ekainberri.com

4

Ertzeko zatiak



Jon Sarasua

2 liburu opari

www.argia.com/denda

5

AZKEN IRABAZLEAK (2378. Argia)

BESARO Landa Hotela

- Orexako udal Liburutegia (Orexa)

EUREKA! Zientzia Museoa

- Andres Odriozola Lizaso (Zarautz)
- Arturo Campion Kultur Elkarte (Iruñea)
- Felipe Alkorta Andonegi (Donostia)

EKAINBERRI

- Andone Barandiaran Arratibel (Pasaia)
- Jon Goti Mendiola (Usansolo)
- Amara Berri AEK Euskaltegia (Donostia)

BILBOKO EUSKAL MUSEOA

- Leire Elizagarai Rodriguez (Gasteiz)
- Julen Gorostizaga Elu (Arrakundiaga)
- Juanjo Barandiaran Arratibel (Donostia)

ARGIA kamiseta

- Jose Mari Ogando Rodriguez (Lekeitio)
- Ixabel Jauregi Alberdi (Azkoitia)

* Bisitaldietarako epea: Bi hilabete

PARTE HARTZEKO

Astelehenetik ostiralera 08:00-15:30

Tel: 943 36 72 85 • gunea@argia.com

www.argia.com/gunea

gunea

argia



ATXEGA JAUREGIA

jatetxea

ATXEGA
JAUREGIA



Aitzezarra, 1

Zumartegi industrialdea

© 943 37 11 50

21070 **Usurbil** (Gipuzkoa)

www.atxegajauregia.com